| 2019KO AZAROAREN 28AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 28 DE NOVIEMBRE DE 2019. |
|---|---|
| ============================== | ============================== |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTA** |

Amaia Aguirre Muñoa and.

| **ALKATEORDEAK** | **VICEALCALDESAS Y VICEALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González Del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Cristina Zamora Chuquiguanga (EH BILDU)
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)

Asunción Olaeta Perez De Mendiola (PSE-EE)
Ignacio Robles Fernández (E. PODEMOS)
Paula Amieva Clemente (E. PODEMOS)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa-Presidenta, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Gai-zerrenda jorratzen hasi baino lehen, honako hau jakinarazi du alkateak: Nerea Guijarrubia udalkidea amatasun-bajan dago, eta EH Bilduko Cristina Zamora udalkideari eskuordetu dizkio osoko bilkura honetako gai-zerrendako puntu guztietarako nahiz bihar egingo den osoko bilkurako puntu guztietarako botoak.

Antes de iniciarse el tratamiento del orden del día la Alcaldesa informa que la corporativa Nerea Guijarrubia, que se halla en situación de baja por maternidad, ha delegado sus votos para todos los puntos del orden del día del presente pleno así como los del pleno a celebrarse mañana en la corporativa de EH Bildu Cristina Zamora.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

## EBAZPEN ATALA

## PARTE RESOLUTIVA

**177.- GETXOKO UDALBALTZAK 2019KO UZTAILAREN 24AN ETA URRIAREN 31N EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKUREN AKTAK ONESTEA.**

**177.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS ANTERIORES SESIONES ORDINARIAS CELEBRADAS LOS DÍAS, 24 DE JULIO Y 31 DE OCTUBRE DE 2019.**

Uztailaren 24ko akta onestea.

Ibon Rodriguezek adierazi duenez, akta honi buruz lehen esandakoa berresten du EH Bilduk, eta, beraz, kontra bozkatuko dute.

Akta bozkatu da, eta onartu da aldeko 19 boto lortu dituelako (EAJ, PP eta PSE-EE), kontrako lau boto (EH Bildu), eta 2 abstentzio (Elkarrekin Podemos).

Paula Amievak azaldu duenez, EH Bilduk eskatutakoa jaso ez delako izan da Elkarrekin Podemos taldearen botoa abstentzioa.

Urriaren 31ko akta aho batez onartu da.

Aprobación del acta del 24 de julio.

Ibon Rodriguez manifiesta que EH Bildu se ratifica en lo indicado respecto a esta acta anteriormente por lo que votarán en contra.

Sometida el acta a votación es aprobada al obtener 19 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu; 2 abstenciones, Elkarrekin Podemos.

Paula Amieva interviene para indicar que Elkarrekin Podemos justifica su voto de abstención porque no se ve incluido lo solicitado por EH Bildu.

El acta del 31 de octubre es aprobada por unanimidad.

**ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK**

**178.- ZERBITZUAK EMATEAREN EDO JARDUERAK EGITEAREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOAREN ALDATZEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek haren edukia azaldu du.

Ignacio Roblesek azaldu duenez, gobernu-taldea gehiengoaz baliatuko da, osoko bilkurari kontrol-aukera kentzen dion neurri bat ezartzeko. Hau da, Tokiko Gobernu Batzordeari esleituko dio onartzeko eskumena, eta, beraz, gardentasuna murriztu egingo da.

Gonzalo Ayok adierazitakoaren arabera, proposamena babestuko dute, bete egiten dituelako Muxikebarriko beharrizanak eta hobetu egingo

**ORGANIZACIÓN Y CUENTAS**

**178.- MODIFICACIÓN DEL ACUERDO REGULADOR DE LOS PRECIOS PÚBLICOS POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS O REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte que presenta la misma indicando su contenido.

Ignacio Robles manifiesta que el equipo de gobierno va a hacer uso de su mayoría para aprobar una medida que quita al pleno su posibilidad de control, asignando la aprobación a la Junta de Gobierno Local, lo que supone reducir la transparencia.

Gonzalo Ayo manifiesta que apoyarán la propuesta porque es ajustada a las necesidades de Muxikebarri y va a mejorar las prestaciones que se dan en

dituelako ekitaldi jakin batzuetan ematen diren prestazioak.

determinados eventos.

Ibon Rodríguezen esanetan, Kultura Aretoan kontra agertu ziren, eta orain ere jarrera horri eutsiko diote. Izan ere, proposamenak zalantzak sortzen ditu, eta, bere ustez, neurri horiek aldez aurretik aurreikusi zitezkeen, obrek iraun duten hamar urteetan denbora aski egon baita. Hala ere, aparteko zuzendaritza-kontseiluaren bidez planteatu da orain. Beraz, bistakoa da inprobisatu egiten dela. Ez dakigu nola kudeatuko den, enpresa pribatuek esku hartuko duten, zein kontratu-araubide aplikatu den, inguruko prezioekin alderatuta zein prezio-irizpide jarraituko den, ez antzekorik. Inprobisazioa nabarmena da. Gogorarazi duenez, bi urtetik gora daramatzate Muxikebarriko kudeaketa-plana eskatzen, horretarako pertsonen beharrizanak eta beharrizan ekonomikoak ebaluatu behar direlarik. Bere ustez, logikoena honako hau da: lehenik eta behin ereduak mugatzea, eta, ondoren, prezioen ordenantza aldatzea.

Ibon Rodríguez indica que en el Aula de Cultura se opusieron y mantendrán la misma postura ya que la propuesta genera dudas y cree que son medidas que se podían prever con antelación ya que los diez años que ha durado la obra ha habido tiempo suficiente. Pese a ello ahora se plantea a través de un consejo rector extraordinario, lo que evidencia que se actúa con improvisación. No se sabe cómo se va a gestionar, ni si van a intervenir empresas privadas, ni qué régimen de contrato ni los criterios de precios en relación con los precios del entorno ni cuestiones similares, la improvisación es evidente. Recuerda que llevan más de dos años reclamando un plan de gestión de Muxikebarri con su correspondiente evaluación de necesidades de personas y económicas. Cree que lo lógico es delimitar primeramente los modelos y luego modificar la ordenanza de precios.

Eduardo Andrade ados dago EH Bilduk esandakoarekin. Adierazi duenez, Getxo Antzokiarekin lotutako oro izan da penagarria. Hamar urte daramatzate bideragarritasun-plan bat eskatzen. Taberna aurreikusita egon beharko litzatekeela uste du. Gogorarazi duenez, prezioak zehazteko eskumena Tokiko Gobernu Batzordeari eskuordetzea onartu zuten. Hala ere, prezio horien berri eman beharko zaio erakunde autonomikoko Zuzendaritza Batzordeari, eraginkortasunari begira. Irizpide horri eusten diotela, eta, beraz, proposamena babestuko dutela gaineratu du.

Eduardo Andrade comparte lo dicho por EH Bildu e indica que todo lo relacionado con el Getxo Antzokia ha sido un desastre. Llevan diez años pidiendo un plan de viabilidad. Cree que el bar debería estar previsto. Recuerda que aprobaron delegar la determinación de los precios en la Junta de Gobierno Local, dando cuenta de los mismos a la Junta Rectora del organismo autónomo por operatividad y que mantienen dicho criterio por lo que apoyarán la propuesta.

Irantzu Uriartek erantzun duenez, Zuzendaritza Kontseiluan azaldu zen nola kudeatuko zen zerbitzua; ekitaldiaren sustatzailearen arabera prezioak aldatu egingo zirela ere azaldu zen. Bere iritziz, prezioak Tokiko Gobernu Batzordearen erabaki bidez zehaztuta ez da gardentasuna murrizten, gauza guztien publizitatea egiten baita. Proposamenak eraginkortasuna du helburu, ekitaldi kultural desberdinak kontuan hartuta.

Irantzu Uriarte responde que se explicó en el Consejo Rector cómo se iba a gestionar el servicio y que en función del promotor del evento varían los precios. Cree que porque se tome la determinación del precio a través de un acuerdo de la Junta de Gobierno Local no se reduce la transparencia ya que todo se publicita. La propuesta busca la operatividad atendiendo a los diferentes eventos culturales.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau lortu da: aldeko 19 boto (EAJ, PP eta PSE-EE), eta aurkako 6 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 19 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 6 votos en contra, EH Bildu, Elkarrekin Podemos.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

LEHENENGOA.- "Ekitaldiak iraun bitartean eskainitako ostalaritza-zerbitzuaren" prezio publikoa ezartzea, eta Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea hainbat kontzepturengatik ordaindu beharreko zenbatekoak finkatzea.

PRIMERO.- Establecer el precio público por la prestación del “Servicio de hostelería durante evento” y delegar en la Junta de Gobierno Local la determinación de los importes a satisfacer por los diferentes conceptos.

BIGARRENA.- “Zerbitzuak jasotzeko edo jarduerak egiteko prezio publikoak arautzen dituen akordioaren” eranskineko B) epigrafea aldatzea, kasu hori jaso dezan; hala, erantsitako espedientean dagoen dokumentuan jasotako terminoetan idatzita geratuko da epigrafea.

SEGUNDO,- Modificar el Epígrafe B) del Anexo del “Acuerdo Regulador de los precios públicos por la prestación de servicios o realización de actividades” para recoger dicho supuesto, quedando dicho epígrafe redactado en los términos del documento anexo que obra en el expediente.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Erabaki horrek ondorioak izango ditu argitaratu eta biharamunean.

TERCERO: Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia. Dicho acuerdo surtirá efectos al día siguiente de la publicación.

**179.- GETXO KIROLAK TOKIKO**

**179.- APROBACIÓN DE CRÉDITO**

**ERAKUNDE AUTONOMOAN HAINBAT AZTERLAN FINANTZATZEKO KREDITU GEHIGARRIA ONESTEA.**

Ignacio Uriarte idazkariak proposamena irakurri ondoren, hura aurkeztu du, eta, horretarako, informazio-batzordean adierazitakora jo du. Informazio-batzordean adierazi zen, izan ere, kredituak Getxo Kirolak-en tarifei eta horien ondorio ekonomikoei buruzko azterlan juridikoa egiteko erabiliko direla.

Ignacio Roblesek adierazi duenez, Getxoko Udalean kreditu gehigarrien gehiegizko erabilera egiten ari da, batez ere Getxo Kirolak-en. Erabilera horietako asko zenbateko oso txikikoak dira. Beraz, argi dago programazioa falta dela. Eskaintzen diren zerbitzuei eta aplikatu behar diren araudiei buruzko azterlan bat egitea udaleko langileen ardura izan daitekeela uste du. Bere ustez, azken osoko bilkuran onartu ziren tasak zehaztu aurretik egin behar zen azterlana.

Ibon Rodríguezen ustez, Getxo Kirolak-en tasen azterlana egitea beharrezkoa da, baina 30.000 euroko zenbatekoa gehiegizkoa iruditzen zaio. Gainera, azterlan juridikoa eta azterlan ekonomikoa bereiztea planteatzen ari dira. Beraz, bi kontratu txiki egin ahalko lirateke. Hori susmagarria iruditzen zaio. Izan ere, ez dakite ukitutakoek azterlan hori egiteko orduan parte hartzeko aukera izango duten ere. Azterlana beharrezkoa dela aurreko legealditik ere jakina da. Logikoena azterlana egin ondoren tasak onartzea litzateke, eta, ez alderantziz, aurreko osoko bilkuran egin zen moduan. Ez du ulertzen zergatik ekarri

**ADICIONAL PARA LA FINANCIACIÓN DE DIVERSOS ESTUDIOS EN EL ORGANISMO AUTÓNOMO GETXO KIROLAK.**

Tras darse lectura a la propuesta por el secretario Ignacio Uriarte presenta la misma remitiéndose a lo indicado en la comisión informativa en la que se manifestó que los créditos se destinarán a un estudio jurídico sobre las tarifas de Getxo Kirolak y también sobre sus efectos económicos.

Ignacio Robles indica que en el Ayuntamiento de Getxo se está abusando de los créditos adicionales sobre todo en lo respecta a Getxo Kirolak, muchos de ellos con cuantías no pequeñas, lo que evidencia una falta de programación. Realizar un estudio sobre los servicios que se prestan y las normativas de aplicación entiende que puede ser hecho por el personal municipal. Opina que ese estudio debió ser previo a la determinación de las tasas que se aprobaron en el último pleno.

Ibon Rodríguez cree que el análisis de las tasas de Getxo Kirolak es necesario pero el importe de 30.000 eruos le parece excesivo y además se plantean diferenciar en un estudio jurídico y otro económico con lo cual se posibilitaría la realización de dos contratos menores, lo que le parece algo sospechoso, ya que tampoco se sabe si se va a dar participación a los afectados en la confección de ese estudio. Se sabe que ese estudio es necesario desde la legislatura anterior y lo lógico es realizar previamente el estudio y luego aprobar las tasas y no al revés como se ha hecho en el pasado pleno. No entiende por qué se trae como crédito

den kreditu gehigarri moduan, baldin eta bihar onartuko bada aurrekontua. Hori guztia dela eta, kontrako botoa emango dute.

adicional cuando mañana se va a aprobar el presupuesto, por todo lo indicado se opondrán.

Alvaro Gonzálezen esanetan, azterlan ekonomikoa eta juridikoa bereizi egin dira, beharrizan desberdinekin lotuta daudelako. Getxo Kirolak-ek badaki zein zerbitzu ematen dituen, baina aplikatzen duen araudiak diskriminaziorik eragiten ote duen aztertu behar du. Langileek, daukaten lan-kargaren ondorioz, ezin dituzte azterlan horiek egin. Duela hamar urteko azterlan ekonomiko bat dago. Azterlan horren egitura oraindik ere baliagarria da; zenbatekoak eguneratzea baino ez da falta. Azterlanak esleitzeko, eskaintzak eta txosten teknikoak hartuko dira kontuan. Horiek guztiak talde politikoen eta herritarren esku jarriko dira.

Alvaro Gonález interviene distinguiendo el estudio económico del jurídico ya que atiende a necesidades diferentes. Getxo Kirolak sabe los servicios que presta pero debe analizar si la normativa de aplicación genera discriminación. El personal propio, por la carga de trabajo que soporta, no puede asumir la realización de esos estudios. Existe un estudio económico de hace diez años que en su estructura sigue siendo igual de válido ya que lo que hay que hacer únicamente es actualizar las cifras. La adjudicación de los estudiios se realizará atendiendo a las ofertas y a los informes técnicos y los mismos se pondrán a disposición de todos los grupos políticos y la ciudadanía.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau lortu da: aldeko 19 boto (EAJ, PP eta PSE-EE), eta aurkako 6 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 19 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 6 votos en contra, EH Bildu, Elkarrekin Podemos.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2019/56, zenbatekoa 30.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2019/56 de Crédito Adicional, por importe de 30.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | **Izendapena**<br>Denominación | **Zenbatekoa**<br>Importe en € |
|---|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| 090/3400/4310001 | Erakunde Autonomoei (Getxo Kirolak Erakunde Autonomoa)<br>Organismos Autónomos (Organismo Autónomo Getxo Kirolak) | 30.000,00 |
| Guztira<br>Total | | 30.000,00 |

## Finantzaketa / Financiación

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako<br>Remanente de tesorería para gastos generales | 30.000,00 |

**180.- 16.3 "KONPORTE" EGIKARITZE-UNITATEA URBANIZATZEKO GASTUAK FINANTZATZEKO KREDITO GEHIGARRIA ONESTEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek hura aurkeztu eta haren edukia azaldu du.

Ignacio Roblesek errepikatu duenez, kreditu gehigarria aurkeztu da aurrekontuak onartu bezperan. Ez du ulertzen zergatik hainbeste presa, hitzarmena 2011koa bada. Gainera, unitate honetan etxebizitza librea baino ez da planteatzen.

Gonzalo Ayok adierazi duenez, udalak, egikaritze-unitatearen barruko jabea denez, karga batzuk hartu behar ditu beregain, eta onartu dena horiei aurre egin ahal izateko eta prozesua ez eteteko beharrezko kreditua da.

Ibon Rodríguezek adierazi duenez, ados dago Elkarrekin Podemosek azaldu duenarekin. PSE-EEri esan dio kreditu gehigarria gauzak erraztearren proposatu bada, irizpide horrekin aurrekontua ezabatzera irits litekeela. EH Bilduren ustez, aurrekontuan jaso behar dira gai horiek guztiak. Izan ere, agiri horretan azaltzen da gobernu-

**180.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA FINANCIACIÓN DE LOS GASTOS DE URBANIZACIÓN DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 16.3 "KONPORTE".**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte que presenta y expone el contenido de la misma.

Ignacio Robles insiste en que se presenta un crédito adicionan en la víspera de aprobar los presupuestos y no entiende las prisas cuando el convenio regulador es del año 2011. Además en esta unidad únicamente se plantea vivienda libre.

Gonzalo Ayo manifiesta que el ayuntamiento como propietario dentro de la Unidad de Ejecución le corresponde asumir unas cargas y lo que se aprueba es el crédito necesario para poder hacer frente a las mismas y no paralizar el proceso.

Ibon Rodríguez manifiesta su acuerdo con lo manifestado por Elkarrekin Podemos e indica al PSE-EE que si el crédito adicional es por agilidad, con ese criterio se podría llegar a eliminar el presupuesto. Eh Bildu cree que el presupuesto es donde deben recogerse estas cuestiones ya que es el documento que explica lo que pretende realizar el

taldeak urtean zehar egin nahi duena, eta oposizioari kontrolerako aukera ematen zaio. Ez du beharrezko ikusten, kontuan hartuta bihar onartuko direla aurrekontuak. Gainera, jarduera honetan etxebizitza libreen eraikuntza soilik errazten da, eta EH Bilduren ustez, hori ez da Getxon etxebizitzen arazoa konpontzeko bidea. Izan ere, alokairuko etxebizitza publikoen multzoa edukitzea litzateke, bere aburuz, irtenbidea.

equipo de gobierno durante el año y posibilita el control por la oposición. No ve la necesidad cuando mañana se van a aprobar los presupuestos y además en esta actuación se agiliza únicamente la construcción de viviendas libres que para EH Bildu no es la solución del problema de la vivienda en Getxo ya que la solución pasa por disponer de un parque de viviendas públicas en alquiler.

Alvaro Gonzalezek azaldu duenez, kreditua beharrezkoa da udalak egikaritze-unitate honetan dituen betebeharrei aurre egiteko. Izan ere, urbanizazio-gastuak ordaindu behar dira, eta, azkenean, udala izango da lursail baten jabea.

Alvaro Gonzalez interviene indicando que el crédito es necesario para hacer frente a las obligaciones del ayuntamiento en esa unidad de ejecución porque hay que acometer los gastos de urbanización y al final el ayuntamiento quedará como propietario de una parcela.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau lortu da: 19 boto alde (EAJ, PP eta PSE-EE); 2 boto kontra, (Elkarrekin Podemos) eta 4 abstentzio (EH Bildu).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 19 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 2 votos en contra, Elkarrekin Podemos, 4 abstenciones, EH Bildu.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, por mayoría se acuerda

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2019/57, zenbatekoa 170.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2019/57 de Crédito Adicional, por importe de 170.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | **Izendapena**<br>Denominación | **Zenbatekoa**<br>Importe en € |
|---|---|---|
| 040/1510/6010000 | Azpiegitura eta urbanizazioa (Hirigintza eta Arkitektura)<br>Infraestructura y urbanización (Urbanismo y Arquitectura) | 170.000,00 |

| Guztira<br>Total | | 170.000,00 |
|---|---|---|

## Finantzaketa / Financiación

| Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako<br>Remanente de tesorería para gastos generales | 170.000,00 |
|---|---|

**181.- UDALAREN LURZORU ONDAREARI HORNIDURA EGITEKO KREDITU GEHIGARRIA ONESTEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek aurkeztu egin du. Adierazi duenez, proposamenaren helburua udalaren lurzoru-ondarearen kredituak areagotzea da, 2019ko ekitaldiaren kargura, 2020an zehaztutakoaren bestelako zenbatekoan. Osoko bilkuran onartzeko aurkeztu da, baina Alkatetza bidez ere onartu zitekeen.

Paula Amievak elkartasuna adierazi du akuarioko langileen borrokarekiko; udaletxearen kanpoaldean kontzentratuta daude langileok. Adierazi duenez, udalaren lurzoru-ondarea hornituko da kreditu gehigarriaren bidez, eta ez aurrekontuen bidez. 2020. urteko aurrekontuan ekarpenik aurreikus ez dadila kritikatu du. Ez dira argitu ekarpenen aldiak, eta ez dakite zenbateko hori gizarte-alokairuko etxebizitzetan inbertitzeko erabiliko ote den, edo lehentasunezkoak ez diren beste xede batzuetarako. Gizarte-alokairuko etxebizitza babesteko urrats bat izatea espero du.

Carmen Díazek adierazi duenez, milioi bat euro erabiliko dira etxebizitza publikoan. Hori positiboa da, etxebizitzaren arazoan ekiteko. Halaber, gobernu-taldearen

**181.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA DOTACIÓN AL PATRIMONIO MUNICIPAL DEL SUELO.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte que presenta la misma manifestando que la propuesta lo que busca es aumentar los créditos del Patrimonio Municipal del Suelo con cargo al ejercicio 2019 en una cuantía diferente a lo que se determine en el año 2020. Se ha presentado la aprobación al pleno aunque podía haberse aprobado por la Alcaldía.

Paula Amieva inicia su intervención mostrando su solidaridad con la lucha de los trabajadores del acuario, que están concentrados en el exterior del ayuntamiento. Manifiesta que se va a dotar al PMS a través del crédito adicional y no de los presupuestos. Critica que nos e contemple aportación alguna en el presupuesto del año 2020. No se clarifican los periodos de aportación y tampoco saben si esta cuantía se va a dirigir para invertir en viviendas de alquiler social o a otros destinos no preferentes. Espera que esto sea un paso para apoyar la vivienda de alquiler social.

Carmen Díaz manifiesta que van a destinar el millón de euros a vivienda de carácter público lo cual es positivo para actuar en el problema de la vivienda y que es un objetivo del

helburuetako bat da etxebizitza eskuragarriagoak eta iraunkorragoak jartzea. Adierazi duenez, alokairuaren alde egiten du, eta hori guztia legealdiko planean agertuko da.

equipo de gobierno facilitar viviendas asequibles y sostenibles. Indica que apuesta por el alquiler y que todo ello figurará en el plan de legislatura.

Itxaso Masedak azaldu duenez, EH Bilduk proposamena babestuko du, baina erreserba batzuekin. Etxebizitzaren gaia konpontzeko bideratzen den guztia gutxi da. Gainera, ez dira asko fidatzen, kontuan hartuta aurreko puntuan onartutakoa eta gobernu-taldeak etxebizitza librea babesten duela etengabe. Bere ustez, alokairuko etxebizitza publikoko multzoaren alde egin behar da, kudeaketa zuzenaren bidez. PSE-EEko bozeramaileak etxebizitza publikora bideratuko dela azaltzeko egindako adierazpena kontuan hartuko du.

Itxaso Maseda indica que EH Bildu apoyará la propuesta pero con reservas. Todo lo que se dedique a solucionar el tema de la vivienda es poco, aunque no se fían visto lo aprobado en el punto anterior y el constante apoyo del equipo de gobierno a la vivienda libre. Cree que hay que apostar por un parque de vivienda pública en alquiler mediante gestión directa y toma nota de la manifestación de la portavoz del PSE-EE de que se va a destinar a vivienda de carácter público.

Alvaro Gonzálezek alegatu duenez, udalaren lurzoru-ondareari baliabideak ematea berri ona iruditzen zaio. Gogorarazi duenez, etxebizitza libreaz eta gizarte-alokairuko etxebizitzaz gain, babestuta dauden beste etxebizitza-mota batzuk daude. Horiek guztiak landu behar direla Getxon gaineratu du. Amaitzeko adierazi duenez, etxebizitza libreak ere badu merkatua Getxon, eta gainera, etxebizitza babestuko jarduerak finantzatzen laguntzen du.

Alvaro González se alegra por que se dote de recursos al PMS y recuerda que además de la vivienda libre y de la vivienda de alquiler social hay otros tipos de viviendas con protección y sobre todas ellas hay que trabajar en Getxo. Finaliza indicando que la vivienda libre también tiene un mercado en Getxo y además ayuda a financiar las actuaciones en vivienda protegida.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: 23 aldeko boto (EAJ, PP, EH Bildu, PSE, EE) eta 2 abstentzio (Elkarrekin Podemos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 23 votos a favor, PNV, PP, EH Bildu, PSE, EE, 2 abstenciones, Elkarrekin Podemos.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, por mayoría se acuerda:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2019/58,

Aprobar el Expediente número 2019/58 de Crédito Adicional, por importe de

zenbatekoa 1.000.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

1.000.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | **Izendapena** Denominación | **Zenbatekoa** Importe en € |
|---|---|---|
| 060/1520/6030000 | Lurzoruaren ondare publikoa (Etxebizitza) Patrimonio público del suelo (Vivienda) | 1.000.000,00 |
| Guztira Total | | 1.000.000,00 |

## Finantzaketa / Financiación

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales | 1.000.000,00 |

**182.- OSOKO BILKURAKO KONTRATAZIO-MAHAIKO KIDEAK IZENDATZEA.**

**182.- DESIGNACIÓN DE MIEMBROS DE LA MESA DE CONTRATACIÓN DE PLENO.**

Proposamena irakurri ondoren, Alvaro Gonzálezek aurkeztu du. Azaldu duenez, bilera batzuk egin dira udal-talde guztiekin, eta, horietan, akordio bat lortu da Osoko Bilkurako eta tokiko erakunde autonomoetako zuzendaritza-kontseiluetako kontratazio-mahaiaren osaerari buruz.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Alvaro González presentando la misma y explica cómo ha habido unas reuniones con todos los grupos municipales en las que se ha llegado a un acuerdo acerca de la composición de la Mesa de Contratación del Pleno y de los consejos rectos de los organismos autónomos locales.

Paula Amievak adierazi duenez, proposamenaren alde bozkatuko dute. Izan ere, Kontratazio Mahaian duten presentzia jasota dago. Hala ere, ez dago ados lortutako akordio orokorrarekin.

Paula Amieva indica que votarán a favor la propuesta porque se recoge su presencia en la Mesa de Contratación aunque no está de acuerdo con el acuerdo global alcanzado.

Ibon Rodríguezek adierazi duenez, proposamena babestuko dute, horixe delako adostu dena, baina ez da gehien gustatuko litzaiekeena. Hala ere, oposizioa zuzendaritza-kontseiluetako eta osoko bilkurako kontratazio-mahai guztietan egotea lortu da. Kasu

Ibon Rodríguez manifiesta que apoyarán la propuesta porque es la que se ha acordado aunque no es la que más les gustaría pero se ha conseguido que la oposición esté en todas las mesas de contratación de los consejos rectores y del pleno. En esta ocasión, reconoce,

honetan, aitortu duenez, kontratazioko zinegotziak bete egin ditu oposizioak planteatutako hobekuntza-eskariak. Ondorioz, agerian geratu da nahi denean akordioak lortu daitezkeela, alde guztiak prest badaude.

Ignacio Uriartek hitz egin du, talde guztiek lortutako akordioa positiboki baloratzeko.

Antolakuntza eta Kontuen Informazio Batzordeak hala proposatuta eta bozkatuta, aho batez onetsi da honako hau:

LEHENENGOA: Indarrik gabe utziko da Udalbatzaren 2018-05-30eko 83.

Adierazitako egunetik aurrera, Kontratazio Mahaia jarraian adierazitako baldintzetan geratuko da.

BIGARRENA: Kontratazio Mahaiak laguntza emango du Udalbatzaren eskumena diren lizitazio prozedura guztietan.

Mahaiak egin beharreko funtzioak SPKLren 326.2. artikuluan adierazitakoak izango dira, 2013-04-30eko Osoko Bilkuraren 39. erabakiaren bidez sortutako kontratazio-organoan egin daitekeen eskuordetzea gorabehera.

HIRUGARRENA: Bere eskumeneko kontratu espedienteetan, Udalbatzari modu iraunkorrean lagundu behar dion Kontratazio Mahaiko kideak izendatzea:

TITULARRAK:

- Batzordeburua: Kontratazio, Ondare eta Etxebizitzako zinegotzi arduraduna: Álvaro González Pérez.

que el concejal de Contratación ha asumido las demandas de mejora planteadas por la oposición, lo que evidencia que cuando se quiere se pueden llegar a acuerdos con voluntad de todas las partes.

Ignacio Uriarte interviene para valorar positivamente el acuerdo alcanzado por todos los grupos.

Sometida a votación y a propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, por unanimidad se acuerda:

PRIMERO: Dejar sin efecto el Acuerdo Plenario nº 83 de fecha 30.05.2018.

Desde la fecha indicada la Mesa de Contratación quedará en los términos señalados a continuación.

SEGUNDO: La Mesa de Contratación prestará asistencia en todos los procedimientos de licitación de competencia plenaria.

Las funciones a realizar por la mesa serán las señaladas en el art. 326.2 LCSP, sin perjuicio de la delegación que se pueda realizar en el órgano de contratación creado por Acuerdo Plenario nº 39 de 30.04.2013.

TERCERO: Designar a los miembros de la Mesa de Contratación que con carácter permanente haya de prestar asistencia al Pleno en los expedientes contractuales de su competencia:

TITULARES:

- Presidente/a: Concejal Responsable de Contratación, Patrimonio y Vivienda: Álvaro

- Mahaikideak:

• PPren udal taldea: Eduardo Andrade Aurrecoechea
• Elkarrekin Podemoseren udal taldea: Paula Amieva Clemente
• o Idazkari nagusia: Ignacio Javier Etxebarria Etxeita.
• Kontu-hartzaile nagusia: Nuria Hernández Soto.
• Udal diruzaina: Maria José Cano Cueli.
• Gizarte Zerbitzuetako arduraduna: Mikel Kerexeta Kortabarria.
• Udaltzaingoko zuzendaria: Jose Ramón Souto Cardeiro.
• Udal ingeniaria ¬– Unitateko burua: Pedro María Sacristan González.

- Idazkaria: Kontratazio, Ondare, Etxebizitzako arduraduna: Leire Bilbao Fuente.

ORDEZKOAK:

- Ordezko mahaiburua: Kontu-hartzailetza Orokorrako zinegotzi arduraduna. Ignacio Uriarte Gorostiaga.

- Ordezko mahaikideak:

o PPren udal taldea: Javier Elorza Hormaeche.
o Elkarrekin Podemoseren udal taldea:Inazio Robles Fernández
o Idazkari nagusiarena: Larraitz Aberasturi Ibarra.
o Udal kontu-hartzailearena: Ainhoa Simeon Amuchastegui.
o Udal diruzainarena: Carlos Fandiño López.
o Gizarte Zerbitzuetako

González Pérez.

- Vocales:

• Grupo Municipal PP: Eduardo Andrade Aurrecoechea
• Grupo Municipal Elkarrekin Podemos: Paula Amieva Clemente
• Secretario General: Ignacio Javier Etxebarria Etxeita.
• Interventora General: Nuria Hernández Soto.
• Tesorera Municipal: Maria José Cano Cueli.
• Responsable de Servicios Sociales: Mikel Kerexeta Kortabarria.
• Director Policía Municipal: Jose Ramón Souto Cardeiro.
• Ingeniero Municipal – Jefe de Unidad: Pedro María Sacristan González.

- Secretaria: Responsable de Contratación, Patrimonio y Vivienda: Leire Bilbao Fuente.

SUPLENTES:

- Presidente/a Suplente: Concejal Responsable de Intervención General. Ignacio Uriarte Gorostiaga.

- Vocales suplentes:

o Grupo Municipal PP: Javier Elorza Hormaeche.
o Grupo Municipal Elkarrekin Podemos: Inazio Robles Fernández
o Del Secretario General: Larraitz Aberasturi Ibarra.
o De la Interventora Municipal: Ainhoa Simeon Amuchastegui.
o De la Tesorera Municipal: Carlos Fandiño López.
o Del Responsable de Servicios Sociales: Ane Malex-echevarria

arduradunarena: Ane Malex-echevarria Udaondo.

o Udaltzaingoko zuzendariarena: Adolfo Ayala Urquijo
o Udal ingeniaria ¬– Unitateko buruarena: Roberto Novales Andrés.

- Ordezko idazkaria: Virginia Penerbosa Bilbao.

Kontratazio Mahaiaren berrikuntzarako lehia- zein elkartze-elkarrizketako prozeduretan, Kontratazio Mahaiak aurretiaz adierazitako eraketa izango du; horrez gain, berrikuntzarako lehia edo elkartzea eragingo duen gaian bereziki kualifikatutako pertsonek hartuko dute parte. Hori guztia SPKLren 327. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz.

LAUGARRENA: Izendatutako Kontratazio Mahaiaren osaera Getxoko Udalaren webgunean (Kontratugilearen profilean) eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udaondo.

o Del Director Policía Municipal: Adolfo Ayala Urquijo
o Del Ingeniero Municipal – Jefe de Unidad: Roberto Novales Andrés.

- Secretaria suplente: Virginia Penerbosa Bilbao.

En los procedimientos de diálogo competitivo o de asociación para la innovación la mesa de contratación tendrá la composición señalada anteriormente y además se incorporarán personas especialmente cualificadas en la materia sobre la que verse el diálogo o la asociación para innovación de conformidad con lo indicado en el art. 327 LCSP.

CUARTO: Publicar la composición de la Mesa de Contratación designada en el Perfil del Contratante de la página Web del Ayuntamiento de Getxo y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**<u>183.- GETXOKO UDALEKO SEKTORE PUBLIKOAREN BARNEKO KONTROLAREN ARAUDIA ONESTEA</u>.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek agiria aurkeztu du. Adierazi duenez, kontuhartzaileak haren edukia zabal azaldu zuen batzordean, eta gobernu-taldea ados dago harekin. Udal-kudeaketan onurak eragingo dituela espero du. Fiskalizatu beharreko alderdiei buruzko azalpenak ematen dituela nabarmendu du, eta, beraz, segurtasuna sortzen eta administrazio-funtzionamenduan laguntzen duela.

**<u>183.- APROBACIÓN DE LA NORMATIVA DE CONTROL INTERNO DEL SECTOR PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO</u>.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte que presenta el documento e indica que la interventora explicó ampliamente su contenido en la comisión y el equipo de gobierno comparte su contenido que espera beneficiar a la gestión municipal, destacando del mismo la clarificación que aporta sobre los aspectos a fiscalizar lo que genera seguridad y mejora en el funcionamiento administrativo.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: 14 aldeko boto (EAJ eta PSE-EE) eta 11 abstentzio (PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 11 abstenciones, PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, por mayoría se acuerda:

1.- Onestea, Udaleko Kontu Hartzailetzak proposatuta, GETXOKO UDALEKO SEKTORE PUBLIKOAREN BARNEKO KONTROLAREN ARAUDIA eta horren hiru ERANSKINAK, espedientean erantsitako edukiarekin eta dokumentazioarekin, 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean sar dadin.

1º.- Aprobar, a propuesta de la Intervención Municipal, la NORMATIVA DE CONTROL INTERNO DEL SECTOR PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, junto a sus tres ANEXOS, con el contenido y la documentación que se acompaña en el expediente, para su entrada en vigor con efectos 1 de enero de 2020.

2.- Indargabetzea Getxoko Udalarentzako aldez aurreko fiskalizazio mugatuari buruzko araudia, 2006ko uztailaren 28ko osoko bilkurako 106. erabakiaren bidez onartua, bai eta fiskalizazioari buruzko barne-araudia ere, Aurrekontuak Betearazteko Udal Arauan jasota egon daitekeena eta erabaki honetan aipatzen den araudian jasotakoaren aurkakoa dena.

2º.- Derogar la Normativa sobre la Fiscalización Limitada Previa para el AYUNTAMIENTO de GETXO aprobada mediante acuerdo plenario nº 106, de 28 de julio de 2006, así como la regulación interna en materia de fiscalización que pudiera estar recogida en la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria y que contradiga lo contemplado en la normativa a la que se refiere el presente acuerdo.

3.- Agintzea, jendeak jakin dezan, GETXOKO UDALEKO SEKTORE PUBLIKOAREN BARNEKO KONTROLAREN ARAUDIA udal webgunean argitaratzeko, hiru ERANSKINEKIN batera.

3º.- Ordenar, para general conocimiento, la publicación de la NORMATIVA DE CONTROL INTERNO DEL SECTOR PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, junto a sus tres ANEXOS, en el portal web municipal.

**LURRALDEA**

**TERRITORIO**

**184.- 2016KO EKAINAREN 29AN, GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO BILKURAN HARTURIKO 147. ERABAKIAREN**

**184.- RESOLUCIÓN DE LAS ALEGACIONES FORMULADAS FRENTE AL ACUERDO Nº 147, ADOPTADO POR EL**

**AURKAKO ALEGAZIOAK EBAZTEA (ERABAKIAREN BIDEZ HAPO ALDATZEKO BEHIN-BEHINEAN ONARPENA EMAN ZEN, SARRIKOBASOKO 31.3 EGIKARITZE-UNITATEAN ETA SARRIKOBASO KALEKO 19. ZENBAKIAN, 56-"KATEA" IZENEKO BANAKETA AREA BERRIA SORTUZ)**

Proposamena irakurri ondoren, Iñigo Urkitzak aurkeztu du. Adierazi duenez, aldeko txosten tekniko eta juridiko guztiak dauzka, eta aukera-irizpideak ere badaude, interes orokorra defendatzeko proposamena babestea aholkatzen dutenak. Izan ere, eremuko hirigintza-antolamendua hobetzeko aukera emango du.

Ignacio Roblesek adierazi duenez, banaketa-gune honek historia konplikatua eta luzaroan hedatua dauka. HAPOn esleitutako erabilerek, hasiera batean, ez zirudíten egokiak. Jabeek 13 urte daramatzate gai honekin. Horrek kalte ekonomikoa eragin die. Adierazi duenez, gainera, eraikin batzuk aurri-egoeran daude, eta, beraz, gastuak eta arriskuak baino ez dituzte eragiten. Jabeen ustez arazoa konpontzeko bidea izapide-egintza bat zenez (alegazioen ebazpena kasu), horiek baiestea eta 2015. urteko egoerara itzultzea planteatu zuten, behin betiko onarpena zenbat atzeratuko den jakin gabe. Hori dela eta, alegazioa baztertu egin behar dela uste dute. Alegazio-egileen lursailak erabilera publikoko bihurtuko dira orain edo gero, baina proposamen honekin jabari publiko bihurtzeko unea aurreratzen da, eta hori positiboa da. Hobekuntza horrek, bere ustez, ez du eragin behar jabeen sufrimendua luzatzea. Ondorioz, kontrako botoa

**AYUNTAMIENTO PLENO EN SESIÓN DE 29.06.2016, POR EL QUE SE APRUEBA, CON CARÁCTER INICIAL, LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO PARA LOS Nº 7, 9, 11, 17 Y 19 DE LA CALLE SARRIKOBASO.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Iñigo Urkitza que la presenta y que dice que cuenta con todos los informes favorables tanto técnicos como jurídicos y existen también criterios de oportunidad que en defensa del interés público aconsejan apoyar la propuesta ya que posibilita mejorar la ordenación urbanística del ámbito.

Ignacio Robles indica que esta área de reparto tiene una historia complicada y dilatada en el tiempo. Los usos asignados en el PGOU inicialmente no parecían adecuados. Los propietarios llevan 13 años con ese tema, lo que les ha supuesto un perjuicio económico e indica también que hay edificios en estado de ruina que lo único que suponen son gastos y riesgos. Cuando los propietarios veían solución al problema en un acto de trámite como es la resolución de alegaciones se plantean estimar las mismas y retrotraer a una situación del año 2015 sin que se sepa lo que se va a retrasar la aprobación definitiva, por lo que creen que debe rechazarse la alegación. Los terrenos de los alegantes van a pasar a uso público antes o después pero con esta propuesta se adelanta el paso al dominio público, lo que es positivo. Cree que esa mejora no debe ser a costa de prolongar el sufrimiento de los propietarios por lo que votarán en contra sin perjuicio de que pidan al

emango dute. Hala ere, udalari eskatzen diote laga beharreko lursaila ahalik eta arinen esleitu dakiola egikaritze-unitate bati.

ayuntamiento que la parcela de cesión se asigne cuanto antes a una unidad de ejecución.

Carmen Díazek aitortu duenez, erabaki zaila da gobernariek hartu behar dutena, baina, nolanahi ere, herritarren onerako hartzen den erabaki bat da. EAJ eta PSE-EE lanean aritu dira egikaritze-unitate honi irtenbide bat emateko, eta PPrekin batera (azken hori azken orduan batu zen), HAPOren hasierako aldaketa onartu zuten. Proposamenak irtenbide hobea bilatu nahi du, espazioak areagotu eta alokairuko etxebizitza babestu gehiago jartzeko. Espedientea zerotik hastea eragingo ez duen antolamendu bat da. HAPOn altuerako aparkaleku bat aurreikusi zen, eta, aldaketaren bidez, etxebizitza babestuak sartu ziren, baina 45 m2-koak ziren eta garajerik gabeak. Alegazioa onartuta, proposamen berri bat sor daiteke, antolamendu hobea ezarri eta 90 m2-ko alokairuko etxebizitza babestuak jasotzeko, aparkalekuekin eta berdegune handiagoekin. Bere ustez, azken emaitzak justifikatu egiten du sor daitekeen atzerapena.

Carmen Díaz reconoce que es una decisión difícil que corresponde adoptar a los gobernantes pero en todo caso mirando el bien de la ciudadanía. El PNV y el PSE-EE han trabajado para dar una solución a esta unidad de ejecución y junto con el PP que se incorporó a última hora aprobaron la modificación inicial del PGOU. La propuesta lo que busca es una solución mejor que posibilitaría ampliar los espacios y más vivienda protegida en alquiler. Se posibilita una ordenación que no requiere empezar de cero el expediente. En el PGOU se contempló un aparcamiento en altura y con el cambio se incorporaban viviendas protegidas pero eran de 45 m2 y sin garajes y aceptando la alegación se puede generar una nueva propuesta que dé paso a una mejor ordenación que recoja viviendas protegidas de alquiler de 90 m2 con garaje y mayores zonas verdes. Cree que el resultado final justifica el retraso que se pueda generar.

Ibon Rodríguezek berariaz eskatu du gaia mahai gainean geratu dadila. Eskari hori helarazi diote hain zuzen ere ukitutako auzokideek, aurkeztutako alegazioei buruz duten iritzia eman dezaten.

Ibon Rodríguez pide que se deje sobre la mesa el asunto, petición que le han trasladado vecinos afectados para que puedan, a su vez, opinar sobre las alegaciones presentadas.

Alkatearen ustez, alegazioak ebaztea premiazkoa da, eta, beraz, ez du eskaria onartu.

La Alcaldesa justifica que entiende urgente la resolución de las alegaciones por lo cual no asume la petición.

Ibon Rodríguezek adierazi duenez, EH Bildu egungo HAPOren garapenaren aurka dago. Izan ere, hura berrikusteko aukerak mugatzen ditu, eta

Ibon Rodríguez indica que EH Bildu se viene oponiendo a al desarrollo del actual PGOU ya que limita las posibilidades de la revisión del mismo

berrikuspena egitea beharrezkoa da. Kasu honetan, gainera, atzeratzeari ezezkoa eman zaio. Atzeratuz gero, jabeek eskari berriari buruzko iritzia eman ahalko lukete. Gainera, egoera txarrean dauden eraikuntzak daude, eta proposamena aurrera ateratzen bada, are gehiago atzeratuko dira horien konponketa-lanak. Gobernu-taldeak dio ez duela jarduten etxebizitza-plan bat eduki arte, baina kasu hauetan, hala ere, jarduten du. Egon daitezkeen etxebizitza babestu moten harira, EH Bilduk ez du jabetzako babes ofizialeko etxebizitzaren alde egiten, diru publikoa esku pribatuetan geratzen delako.

que es necesario realizar. En este caso además se suma la negativa del aplazamiento que posibilitaría que los propietarios puedan opinar sobre la nueva alegación y también la existencia de edificaciones que están en mal estado y la propuesta si sale adelante retrasa más aún sus arreglos, el equipo de gobierno dice que no actúa hasta tener un plan de vivienda pero sin embargo en estos casos actúa. En relación a los diferentes tipos de vivienda protegida que puedan existir EH Bildu no apuesta por la VPO en propiedad ya que es poner dinero público en manos privadas.

Eduardo Andradek adierazi duenez, 13 urtez jabeekin hitz egiten egon ondoren eta EAJk eta PPk Algortaren berrantolamenduari buruzko akordioa lortu ondoren, atzera bota nahi da 2016. urtean onartu zen akordio bat. PPk egikaritze-unitate hori desblokeatu zuen, eta orain berriz ere blokeatu da. Proposamen honekin, atzeratu egingo da gune hau berrantolatzea eta berreskuratzea, etxebizitza babestuak lortu ahala. Proposamen honek alde batez hausten du lortutako akordioa, eta kalteak eragiten dizkie Algortako auzokideei. EAJ eta PSE-EE gehiengoaz baliatzeko da proposamena, eta ez da azalpenik ematen irizpide-aldaketari buruz. Galdetu du ea zergatik ez zen orain egikaritze-unitate honetara sartzen den lurzoru hori beste egikaritze-unitate batera lotu, esaterako Ormazako edo Venanciosko egikaritze-unitatera, lehenagoko fasean baitaude, edo zergatik ez den eraman arazo hau ebazteko ardura HAPO berrira. Orain jabeek aurreko egoerara itzuli beharko dute, atzerapen nabarmenarekin. EH Bilduk bezala, ebazpena luzatzeko

Eduardo Andrade indica que tras 13 años de conversaciones con los propietarios y tras el acuerdo del PNV y PP sobre la reordenación de Algorta, se quiere echar para atrás un acuerdo que se aprobó el año 2016. El PP desbloqueó esa unidad de ejecución que ahora se vuelve a bloquear. Con esta propuesta se retrasa la reordenación de esa zona y lograr su recuperación a la vez que se conseguían viviendas protegidas. Esta propuesta supone romper unilateralmente el acuerdo alcanzado con el perjuicio que supone a los vecinos de Algorta. La propuesta es un ejercicio del rodillo PNV, PSE-EE y no se da explicación alguna sobre el cambio de criterio. Pregunta por qué no se unió ese suelo que ahora se incorpora a esta unidad de ejecución a otra unidad de ejecución como la de Ormaza o Venancios, que están en situación más embrionaria o por qué no se traslada resolver este problema al nuevo PGOU, ahora los propietarios tendrán que volver a una situación muy anterior con un retraso importante y pide como EH Bildu que

eskatu du.

Alvaro Gonzálezek adierazi duenez, Getxok erabaki horren onurak jasoko ditu. Izan ere, espazio publiko gehiago sortzen ditu, berdegune gehiago ahalbidetuz (orain ez baitago) etxebizitza publiko duinari esker. Hala, aparkalekuak eta azalera handiagoak lortuko dira. Alegazioa onartzeak antolamendu berria ahalbidetzen du. Jabeentzat labankada garrantzitsua dela onartzen du, baina epe luzera onuragarria izango dela uste du.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 14 boto (EAJ eta PSE-EE), eta aurkako 11 boto (PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos).

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Udalbatzaren 2016-06-29ko 147. Erabakiaren aurka jarritako alegazioak ebatziko dira, aurreko oinarrietan azaldutako moduetan. Erabaki horren bidez, hasiera batean onetsi zen Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa zehatza, JESUS HERMOSO MENDEZ ANDREAK ETA BESTE BATZUEK proposatuta, Sarrikobaso kaleko 7., 9., 11., 17. eta 19. zenbakietarako.

Gauzak horrela, Carlos Hernando Pérez jaunak eta Ricardo González Gómez jaunak jarritako alegazioari dagokionez, berariaz agerrarazi behar da izapidetzen ari den aldaketa zehatzak ez duela, printzipioz, hura gauzatzea oztopatzen; hortaz, erabaki hori ez da espediente honetan hartu behar, eta Gizarte Kohesioko Arloari

se aplace la resolución.

Alvaro González indica que Getxo se va a beneficiar de esta decisión porque genera más espacios públicos, posibilitando más zonas verdes que ahora no hay con una vivienda pública digna ya que conllevarían aparcamientos y mayores superficies. La aceptación de la alegación posibilita una nueva ordenación. Reconoce que es un traspié importante para los propietarios pero a la larga será beneficioso.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 11 votos en contra, PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos.

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

Resolver, en los términos expresados en las "consideraciones" precedentes, las alegaciones formuladas frente al acuerdo nº 147, adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión de 29.06.2016, por el que se aprueba, con carácter inicial, la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo propuesta por Dña. Mª JESUS HERMOSO MENDEZ Y OTROS, para los nº 7, 9, 11, 17 y 19 de la calle Sarrikobaso.

De este modo, y respecto a la alegación presentada por D. Carlos Hernando Pérez y D. Ricardo González Gómez, se deja constancia expresa de que, sin que la Modificación Puntual que se tramita impida, en principio, su realización, no es decisión que corresponda tomar en este expediente, debiendo ser remitida la alegación al Área de Cohesión Social

helarazi behar zaio alegazioa, jasota gera dadin.

para su debida constancia.

Magra de Orue neba-arrebek aurkeztutako alegazioari dagokionez, hura baietsi da; horrenbestez, antolamendu-proposamena berridatzi behar da, Urduñako Mendatearen kaleko 6-8. zenbakietan dagoen lurzatia 56. banaketa-arearen, Katea izenekoaren, zatitzat jo dadin. Ondorioz, erabaki da jarduketak atzera ekartzea, antolamenduko proposamen berria egiterakoan, hasiera batean onesteko aurkez daitezen.

Respecto a la presentada por los Hermanos Magra de Orue y otros, se estima la misma, lo que supone la necesidad de reformular la propuesta de ordenación para que sea considerada la parcela sita en los nº 6-8 de la calle Puerto Orduña parte del ámbito de la nueva Área de Reparto nº 56-Katea. En consecuencia, se acuerda la retroacción de las actuaciones para que, formulada la nueva propuesta de ordenación, sea sometida a aprobación inicial.

## UDAL ORGANOEN KONTROLA

## CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN

### 185.- EMAKUMEENGANAKO INDEARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO BOZERAMALE BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA.

### 185.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE LA JUNTA DE PORTAVOCES RELATIVO AL DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.

Adierazpena irakurri ondoren, Berdin Sareako teknikariek egindako lana eskertu du Paula Amievak. Emakumeekiko konpromiso sendoa eta indarkeria matxista orotik aske dagoen jendartearen aldeko lana biderkatu dadila nahi du Elkarrekin Podemosek. Emakumeen artean kontzientziazio-mailan eta antolaketa eta adierazpenerako gaitasunean egon diren aurrerapenak azaldu ditu. Halaber, adierazi duenez, indarkeria matxista errealitate bat da. Horren gaineko datuak aurkeztu ditu, eta administrazio publikoek egin beharreko jarduerak planteatu ditu. Gobernu-taldeari eskatu dio, bi

Tras dar lectura a la declaración interviene Paula Amieva que agradece el trabajo de las técnicas de Berdin Sarea. Elkarrekin Podemos quiere redoblar su compromiso firme con las mujeres y el trabajo por una sociedad libre de toda violencia machista. Explica los avances de concienciación que se están dando en las mujeres y su capacidad de organización y expresión. Incide también en que la violencia machista es una realidad, aportando datos al respecto y planteando actuaciones a realizar por las administraciones públicas. Pide al equipo de gobierno, que está liderado por dos mujeres, un cambio de forma

emakume buru izanda, politika egiteko modua alda dezala, talde guztiek partaidetza handiagoa izan dezaten.

de hacer política dando más participación a todos los grupos.

Carmen Díaz esker oneko agertu da EUDELen babes tekniko politikoarekin landu den agiriari buruz Bozeramaile Batzordean lortu den adostasuna ikusita. Adostutako testuaren funtsezko alderdiak azpimarratu ditu.

Carmen Díaz agradece el consenso logrado en la Junta de Portavoces sobre el documento que ha sido trabajado en EUDEL con el apoyo técnico político. Resalta los aspectos fundamentales del texto acordado.

Cristina Zamorak adierazi duenez, EH Bilduk sinatu du EUDELen adierazpena, baina beharrezkoa iruditzen zaio ñabardura batzuk egitea. Erreparazioa eskubide bat bainoago printzipio bat dela uste du, eta, horregatik, indarkeria matxistaren biktimen kasu guztientzako beharrezko bitartekoak jar daitezela eskatu du. Azaldu duenez, alderdi politiko batzuek adierazpena onartu dute, eta, aldi berean, indarkeria matxista justifikatzen duten alderdi xenofoboekin egin dituzte hitzarmenak. Egoeraren gaineko kontzientzia hartzeko eskatu die. Erakunde publikoek beren eskumenen barruan ere geroz eta erantzukizun gehiago hartu behar dutela uste du.

Cristina Zamora indica que EH Bildu ha suscrito la declaración de EUDEL aunque cree necesario realizar las matizaciones y cree que la reparación es un derecho más que un principio y por tanto exige poner los medios necesarios para todos los casos de víctimas de violencia machista. Manifiesta que hay partidos políticos que han aprobado la declaración a la vez que pactan con otros partidos xenófobos que justifican la violencia machista y les pide que sean más conscientes. Cree que las instituciones públicas cada vez más desde sus competencias deben asumir su responsabilidad.

Keltse Eigurenek positiboki baloratu du Bozeramaile Batzordean aho batez hartutako erabakia, osoko bilkuran jakinarazi dena. Aho batez onartu da, dioenez, udalbatza osoaren ustez garrantzitsua delako emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea. Izan ere, egungo desberdintasuna da emakumeenganako indarkeria eragiten duena. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaio udaleko talde guztiak batzen dituen hori azpimarratzea, talde bakoitzak egin ditzakeen ñabardurak zehaztearen gainetik. Halaber, adierazi duenez, EAJk eremu guztietan lanean jarraituko

Keltse Eiguren pone en valor el acuerdo unánime adoptado en la Junta de Portavoces del que se ha dado cuenta al pleno. Resalta la unanimidad que se debe a que toda la corporación pone en valor la importancia de buscar una igualdad real entre mujeres y hombres ya que la actual diferencia es la que fundamenta la violencia contra las mujeres por eso cree importante destacar lo que une a todos los grupos del ayuntamiento más que las matizaciones que cada grupo pueda plantear e indica que el PNV va a seguir trabajando en todos los ámbitos por construir una sociedad libre de la

du, emakumeenganako indarkeriarik gabeko jendartea eraikitzeko.

violencia sobre las mujeres.

Alkatetzak proposamena eginda, 2019ko urriaren 21eko Bozeramaileen Batzordearen akordioaren jakitun egon, ondorengo udal erakundearen adierazpenari doakionez:

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces de 21 de octubre de 2019:

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI ERREPARAZIORAKO TOKIKO EKINTZAK

ACTUACIONES LOCALES PARA LA REPARACIÓN DE LAS VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA

Azaroaren 25a (Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) dela-eta, indarkeria mota honen egitura-izaera nabarmentzen dugu, eta gure konpromisoa agertu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeko. Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorrita, berresten dugu beharrezkoa dela ekintzak proposatzea esku-hartzearen alor guztietan: prebentzioa, hautematea, arreta, babesa, koordinazioa eta justizia, arreta berezia jarrita biktimei eta bizirik atera diren pertsonei erreparazioa ematean.

Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, reiteramos el carácter estructural de este tipo de violencia y manifestamos nuestro compromiso con la construcción de una sociedad libre de violencia contra las mujeres. Asimismo, en línea con el marco jurídico internacional, reafirmamos que es necesario plantear actuaciones en todos los planos de la intervención: prevención, detección, atención, protección, coordinación y justicia, haciendo hincapié en la importancia de la reparación a las víctimas y supervivientes.

Biktimei erreparazioarako printzipioak berekin dakar biktimak eskubide-urraketa bizi aurreko egoerara lehengoratzeko beharrezkoak diren ekinzak martxan jartzea. Indarkeria matxistaren biktimen kasuan, xedetzat hartzen da biktimaren bizi-baldintzak funtsean hobetzea, urratutako eskubideengatik erreparazioa jasota eta eragindako minetik berrezarrita. Era berean, ahalduntze-prozesua bultzatu behar da, indarkeria-egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartu dezaten.

El principio de reparación de las víctimas supone poner en marcha las acciones necesarias con el fin de devolver a la víctima al estado previo a sufrir la violación de sus derechos. En el caso de las víctimas de la violencia machista, se entiende que el fin es la mejora sustancial de las condiciones de vida de las víctimas a partir de la reparación de sus derechos violados y recuperación del daño causado. Así mismo, se ha de apoyar el proceso de empoderamiento que refuerce su capacidad y autonomía para superar la situación de violencia.

Tokiko gobernuek biktimei arreta eskaintzeko alorrean aitortuta dugun erantzukizuna eta eskumena gure gain hartzen dugu, gure herri eta hirietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik hurbilen gauden erakundeak garelako. Politikarien eta teknikarien bultzada koordinatuarekin, tokiko erakundeen esku-hartzea funtsezkoa da erreparatzeko prozesuan, komunitateko bizitza berrezartzen laguntzeko eta biktimei erreparazio publiko eta soziala emateko, indarkeria matxistaren biktimen eta bertatik bizirik atera diren pertsonen inguru hurbilenean.

Los gobiernos locales asumimos la responsabilidad y competencia reconocida en materia de atención a las víctimas, por ser las instituciones más cercanas a las mujeres que sufren violencia machista en nuestros pueblos y ciudades. Bajo el impulso coordinado del personal político y técnico, la intervención local en reparación resulta clave para ayudar a la restitución de la vida comunitaria y la reparación social y pública en el entorno más cercano de las víctimas y supervivientes de la violencia machista.

Horren ildotik, Berdinsareako (Berdintasunaren aldeko eta emakumeekiko indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea) udaletako berdintasun-teknikarien lana oinarrizkoa eta balio handikoa da, udaletan ekintzarako orientazio eta irizpide komunak eskaintzeko, batez ere, udal txikienetan. Hain zuzen, erreparazioari dagokionez, Indarkeria matxistaren biktimei erreparaziorako tokiko ekintzen gida bat prestatzeko lanean ari dira, tokiko erakundeek indarkeria matxistaren biktimek ordaina jasotzeko duten eskubidea praktikan jarri eta zehaztu ahal izan dezaten, udal eskumenaren esparruan.

En este sentido, el trabajo de las técnicas municipales de igualdad en Berdinsarea (Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la violencia hacia las mujeres) es fundamental y valioso para proveer a los ayuntamientos, especialmente a los de menor tamaño, de orientación y criterios comunes de actuación. En concreto, en el ámbito de la reparación, se trabaja en la elaboración de una Guía de Actuaciones Locales para la Reparación de las víctimas de Violencia Machista, para que las entidades locales puedan llevar a la práctica y concretar el derecho de reparación de las víctimas de violencia machista, en el ámbito de competencia municipal.

Tokiko gobernuek konpromiso politikoak betetzeko jardun nahi dugu, eta, horren bidez, indarkeria matxistaren modu guztiak desagerrarazten lagundu, honela:

- Biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jarrita, euren beharrizan eta eskariei entzunez eta arreta emanez.
- Langile espezializatu eta

Los gobiernos locales queremos actuar para cumplir los compromisos políticos, y con ello poder contribuir en la erradicación de todas las formas de violencia machista,

- Poniendo los derechos de las víctimas en el centro de todo el proceso de atención, escuchando y atendiendo sus necesidades y demandas.
- Contando con recursos y personal

kualifikatuak edukita, erreparazioaren ikusmoldetik, ikuspegi feministarekin.

• Erreparaziorako eta ahalduntzeko esku-hartze prozesu guztietan, kudeaketa eta azkartasuna bermatzeko lan eginez.
• Tartean sartutako erakunde guztiekin koordinatuz, arreta eta erreparaziorako baliabideak egituratzeko, indarkeria matxistaren biktimen egoera erabat lehengoratuko dela eta urratutako eskubideak berrezarriko direla bermatzeko.
• Talde feministekin eta tokiko emakumeen elkarteekin modu estuan lankidetzan arituta, berdintasun-politikak eta ekintzak diseinatzeko, biktimei eta bizirik atera diren pertsonei arreta eta erreparazioari dagokionez.
• Era berean, dei egiten diegu herritar guztiei, udalerri guztietan A25 dela-eta antolatuko diren salaketa- eta aldarrikapen-ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.

especializado y cualificado, desde el enfoque reparador con perspectiva feminista
• Velando por la diligencia y celeridad en todos los procesos de intervención reparadores y empoderadores
• Coordinándose con todas las instancias implicadas, para articular los dispositivos de atención y reparación que garanticen la recuperación integral de las víctimas de violencia machista y la restitución de los derechos vulnerados.
• Cooperando estrechamente con las agrupaciones feministas y asociaciones de mujeres locales para el diseño de políticas de igualdad y actuaciones en materia de atención y reparación de las víctimas y supervivientes de violencia machista.
• Y así mismo, hacemos un llamamiento a toda la ciudadanía para que participe activamente en los actos de denuncia y reivindicación que se desarrollen con motivo del 25N en todos los municipios.

## ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

### 186.- SEKTORE PUBLIKOAREN 2019K KONTROL FINANTZARIOAREN URTEKO PLANAREN BERRI EMATEA.

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek hitz egin du. Proposamena aurkeztu du, eta, adierazi duenez, 183 puntuarekin lotuta dago. Halaber, planaren edukia azaldu du.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

## ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

### 186.- DACION DE CUENTA DEL PLAN ANUAL DE CONTROL FINANCIERO 2019 DEL SECTOR PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte presentando la misma, manifestando que está vinculada al punto 183 a la vez que explica el contenido del plan.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

1.- Kontu Hartzailetza Orokorrak egindako GETXOKO UDALEKO SEKTORE PUBLIKOAREN 2019KO KONTROL FINANTZARIOKO URTEKO PLANAREN BERRI EMATEA, Osoko Bilkurak informazio hori izateko ondorioetarako soilik, espedienteari erantsitako edukiarekin eta dokumentazioarekin.

1º.- Quedaron enterados, a los únicos efectos informativos para el Pleno Municipal, del PLAN ANUAL DE CONTRO FINANCIERO 2019 DEL SECTOR PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO elaborado por la Intervención General, con el contenido y la documentación que se acompaña en el expediente.

**187.- UDAL-DIRUZAINTZAREN HIRUHILEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARREN ARTIKULUAN XEDATUTAKOA BETE BEHARREZ (2019KO 2. HIRUHILEKOA).**

**187.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME TRIMESTRAL DE TESORERIA EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO CUARTO DE LA LEY 15/2010 (2º TRIMESTRE DE 2019).**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek hura aurkeztu du. Adierazi duenez, ordainketen % 99,99 epe barruan egin dira.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte presentando la misma, que indica que el 99,99% de los pagos se han realizado dentro del plazo.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

IT 020-2019 Diruzaintzako Txostenaren edukiaren jakitun egon; txosten hori betebeharrak ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzkoa da.

Quedaron enterados del contenido del Informe de Tesorería IT 020-2019 sobre el cumplimiento de los plazos legales para el pago de obligaciones.

**188.- UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN 2019KO 3. HIRUHILEKOKO AURREKONTUAREN BURUTZAPENAREN BERRI EMATEA.**

**188.- DACIÓN DE CUENTA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA DEL AYUNTAMIENTO Y DE LOS ORGANISMOS AUTONOMOS, 3ª TRIMESTRE 2019.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek hitz egin du. Adierazi duenez, irailaren 30ean likidatutako eskubideak diru-sarreren % 74,10 dira, eta gastuak aitortutako betebeharren fasean % 50,50, baimen-fasean % 77,3, eta

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte manifestando que a 30 de septiembre los derechos liquidados ascienden a 74,10% de los ingresos y los gastos en fase de obligaciones reconocidas 50,50%, en

xedapen-fasean % 73,43. Arlorik garrantzitsuenen egikaritza zehaztu da.

fase de autorización 77,3% y en fase de disposición 73,43%, pasando a detallar la ejecución de las áreas más importantes.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

2019ko 3. hiruhilekoari dagokion Aurrekontu Orokorraren Exekuzio-egoerak jakitun egon, zeinari buruzko dokumentazioa aipaturiko espedientean jasota dagoen.

Quedaron enterados de los Estados de Ejecución del Presupuesto General, correspondientes al 3º trimestre del 2019, cuya documentación consta en el expediente de referencia.

**189.- 5062/2019 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIEN BIDEZ AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

**189.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO Nº 5062/2019 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek hura aurkeztu eta haren edukia azaldu du.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte presentando la misma, Ignacio Uriarte presenta la misma.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

Jakitun egon transferentzien bidezko aurrekontu-aldaketaren dekretu hau:

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

5062/2019 zenbakidun Dekretua 1.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2019/09 kreditu-transferentzia. Idazkaritza-bulegorako altzari erosketa.

Decreto nº 5062/2019 por un importe de 1.000,00 euros. Transferencia de crédito 2019/09. Adquisición de mobiliario para despacho de Secretaria.

**190.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

**190.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek lau aldaketak aurkeztu ditu, eta diru-sarreren jatorria eta xedea zein diren azaldu du.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte presenta las cuatro modificaciones indicando de dónde provienen los ingresos y sus destinos.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

Jakitun egon kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

5119/2019 zenbakidun Dekretua 8.464,50 euroko zenbatekoarekin. 2019/11F kreditua gaitzea. Lurzoruaren Kalitatearen esplorazio-ikerketa Getxon lurperatutako bi dedosituen ingurnean.

Decreto nº 5119/2019 por un importe de 8.464,50 euros. Habilitación de crédito 2019/11F. Investigación exploratoria de la Calidad del Suelo del suelo del entorno de dos depósitos enterrados en Getxo.

5130/2019 zenbakidun Dekretua 19.695,00 euroko zenbatekoarekin. 2019/12F kreditua gaitzea. Mahaikideen egun-saria ordaintzeko. Gorte Nagusietarako 2019ko azaroaren 10ean Hauteskundeetan parte hastzeagatik.

Decreto nº 5130/2019 por un importe de 19.695,00 euros. Habilitación de crédito 2019/12F. Pago de dietas a miembros de mesa por su participación en las elecciones a Cortes Generales el 10 de noviembre de 2019.

5144/2019 zenbakidun Dekretua 93.459,53 euroko zenbatekoarekin. 2019/13F kreditua gaitzea. Bilbao Bizkaia helmuga turistikoaren garapena, 2019.

Decreto nº 5144/2019 por un importe de 93.459,53 euros. Habilitación de crédito 2019/13F. Desarrollo turístico en destino Bilbao Bizkaia 2019.

5225/2019 zenbakidun Dekretua 14.802,08 euroko zenbatekoarekin. 2019/14F kreditua gaitzea. 2019 ariketarako genero indarkeria kontuetan Estatu-Itunaren garapena.

Decreto nº 5225/2019 por un importe de 14.802,08 euros. Habilitación de crédito 2019/14F. Desarrollo del Pacto de Estado en materia de violencia de género 2019.

## MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

## MOCIONES E INTERPELACIONES

**191.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO**

**191.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR**

**MOZIOA: LIBURUEN ETXEKO MAILEGUA.**

Gonzalo Zorrilla-Lequericak mozioa irakurri du. Irakurketak pertsona guztiengan dituen onurak azpimarratu ditu, baita pertsona nagusiengan eta ezintasunen bat duten pertsonengan dituenak ere. Udalak irakurketa sustatze aldera egiten dituen jarduerak aitortzen ditu, eta bere ustez, planteatu dena horren osagarri da, aipatu kolektiboei irakurketarako sarbidea erraztu dakien. Zerbitzu hori eskaintzen duten udalerrien berri eman du.

EH Bilduko Itxaso Masedak zuzenketa transakzional bat planteatu du, gehitzeko. Honako hau dio:

*"Pertsona boluntarioen sare bat osatuko da, etxetik ateratzeko ezintasuna duten, eta zerbitzua eskatzen duten pertsonei irakurle lanak egite ko euren etxeetan. Horrela, bakardade egoera jasan behar dutenen egoerari irtenbide bat emango zaio".*

Gonzalo Zorrilla-Lequericak zuzenketa onartu du.

Ignacio Roblesek adierazi duenez, ados dago PPk irakurketaren onurei buruz adierazi duenarekin, baina interesgarriagoa iruditzen zaio pertsonak etxeetara hurbiltzea. Beste arrazoi batzuen ondorioz (kontziliazioa kasu) bertaratu ezin diren pertsonei zerbitzu hau eskaini beharko litzaiekeela uste du. Hobekuntza transakzionalak mozioa hobetzen duela uste duenez, babestu egingo dute.

Gonzalo Ayok adierazi duenez, mozioak eta zuzenketak helburu bera dute, baina eskari hori berez ez da

**S/PRÉSTAMO DE LIBROS A DOMICILIO.**

Gonzalo Zorrill-Lequerica da lectura a la moción. Recalca los beneficios de la lectura para todas las personas y también para las personas mayores y que tengan discapacidades. Reconoce las actuaciones del ayuntamiento en orden a fomentar la lectura y cree que lo que se plantea es algo complementario para facilitar el acceso a la lectura de los colectivos indicados. Da cuenta de municipios que ofertan este servicio.

Itxaso Maseda, de EH Bildu plantea una enmienda transaccional de adición a la que da lectura:

*"Organizar una red de personas voluntarias para acudir a los domicilios de aquellas personas imposibilitadas para salir de casa y que solicitaran el servicio, con el fin de ofrecerles sesiones de lectura, rompiendo así, en caso de necesidad, el aislamiento que pudieran padecer"*

Gonzalo Zorrilla-Lequerica acepta la enmienda.

Ignacio Robles manifiesta que comparte la opinión del PP sobre los beneficios de la lectura pero les parece más interesante acercar las personas a las casas. Creen que el servicio se debe ampliar a las personas que no pueden acudir por otras razones como la conciliación. Estima que la enmienda transaccional mejora la moción por lo que la apoyarán.

Gonzalo Ayo indica que la moción y la transaccional tienen un objetivo que comparten pero esa demanda no existe

existitzen. Herritarren eskariak asetzen dituzten zerbitzuak sortu behar direla uste du. Proposamenak gastua eragiten du, eta, beraz, abstenitu egingo dira.

y opina que deben de crearse servicios que respondan a demandas de la ciudadanía. La propuesta supone un coste y por todo ello se abstendrán.

Itxaso Maseda ados dago mozioarekin eta irakurketa sustatzearekin. Bakardadeari aurre egiteko asmoz aurkeztu dute zuzenketa transakzionala. PSE-EEko ordezkariari adierazi dio eskaintzarik ez badago, ez dela inoiz eskatuko zerbitzua.

Itxaso Maseda manifiesta estar de acuerdo con la moción y con el fomento de la lectura y han presentado la enmienda transaccional para combatir también la soledad. Al representante del PSE-EE le indica que si no faltase oferta nunca se va a demandar el servicio.

Irantzu Uriartek adierazi duenez, liburutegiko eta Getxo Lagunkoia-ko teknikariekin baloratu dute proposamena. Zerbitzu hau duela urte batzuk egon zen Getxon, baina oso gutxi erabili zen, eta, beraz, bertan behera geratu zen. Getxo Lagunkoiak egin dituen kontsultetan ez da antzeman eskari hori. Gobernu-taldearen helburua jendea etxetik ateratzea da, eta mozio honekin ez da halakorik lortzen. Ezintasuna duten pertsonak daudela aitortzen du, baina liburu elektronikoen aukera ere eskaintzen da, horiek deskargatzeko laguntza ematen duena eta letra-mota bakoitzaren ikusmen-egoerara egokitzea ahalbidetzen duena. Azpimarratu duenez, Getxon badaude elkarteak pertsona nagusiei lekualdaketak eta abar egiten laguntzeko. Ondorioz, abstenitu egingo dira.

Irantzu Uriarte indica que han valorado la propuesta con los técnicos de las bibliotecas y de Getxo Lagunkoia. Este servicio existió hace años en Getxo aunque se utilizó muy poco por lo que se suprimió. Esta demanda no se ha detectado en las consultas que ha realizado Getxo Lagunkoia. El objetivo que persigue el equipo de gobierno es sacar a la gente mayor de casa, lo que no se posibilita con esta moción. Reconoce que existen discapacitados pero también se ofrece la posibilidad de libros electrónicos ayudándoles en su descarga y que posibilitan ajustar los tipos de letra a la situación visual de cada una de las personas. Incide en que existen asociaciones en Getxo que acompañan a personas mayores en desplazamientos, etc., por lo que se abstendrán.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak eskerrak eman dizkie mozioa babestuko duten talde guztiei. Pertsona nagusiei zuzendutako zerbitzu bat dela errepikatu du, horietako asko ezin baitira etxetik irten. Bezeroaren liburutegiaren esperientziak funtzionatu ez bazuen, promozio-faltagatik izan zitekeela uste du.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica agradece a los grupos que van a apoyar la moción, que se dirige hacia las personas mayores de las cuales muchos no pueden salir de casa. Cree que la experiencia pasada de la biblioteca del paciente, que no funcionó, pudo ser por falta de promoción. Manifiesta que no todas las personas mayores son

Adierazi duenez, pertsona nagusi guztiek ez dute internet erabiltzen. Bere ustez, kostua ez da oso altua izango. Taldeen jarrera ikusita, mozioa onartuko dela baina aplikatuko ez dela uste du.

usuarias de internet. Estima que el coste no puede ser excesivo y vista la postura de los grupos prevé que la moción se aprobará pero que no se aplicará.

Ignacio Roblesek ere esan du kostua ez dela oso altua izango, eta aurreko esperientziak porrot egiteko arrazoia aztertu beharko litzatekeela gaineratu du. Liburu digitala eta irakurle batek eman diezazukeen konpainiaren beroa ezin konpara daitezkeela uste du.

Ignacio Robles comparte que el coste no será excesivo y que habría que analizar por qué fracasó la experiencia anterior. No cree que el libro digital se pueda comparar con el calor de un acompañante como lector.

Itxaso Masedak adierazi duenez, udalak haur eta gazteen artean irakurketa sustatzeko egiten duen lana ondo dago, baina nagusiek ere behar dute irakurketa, eta, horregatik, mozioa babestuko dute.

Itxaso Maseda manifiesta que el fomento de la lectura que realiza el ayuntamiento respecto a niños y jóvenes está bien pero la gente mayor también necesita la lectura y por ello apoyarán la moción.

Irantzu Uriartek adierazi duenez, pertsona nagusiei liburuak eramateko borondatezko pertsonak egon badaude, baita bakarrik dauden pertsonei konpainia egiteko zerbitzuak ere, liburuak eraman ditzaketenak. Telefono bidezko zerbitzu bat ere badago.

Irantzu Uriarte indica que personas voluntarias para llevas libros a las personas mayores existen así como servicios de acompañantes para las personas solas que pueden también llevarles los libros, además también existe un servicio telefónico.

Mozioa bozkatu da eta honako emaitza hau lortu du: 11 boto alde (PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta 14 abstentzio (EAJ eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Irakurketak hainbat gaitasun eta ekintza positibo eskaintzen ditu, besteak beste: ezagutzak, hausnarketa, jakituria eta entretenimendua.

La lectura, entre otras capacidades y acciones positivas, proporciona conocimiento, reflexión, sabiduría y entretenimiento.

Familian eta ikastetxeetan hasten dira irakurzaletasuna sustatzen; horretarako, garrantzitsua da liburuekiko hurbiltasuna ahalbidetzen

El fomento de la lectura se inicia en la familia y en los centros escolares y necesitan de personas y lugares que permitan el acercamiento de los libros,

duten pertsonak eta tokiak egotea, hala nola liburutegiak, hezitzaileak eta familiak.

a través de las bibliotecas, educadores y familias.

Erakunde publiko guztiek, besteak beste —logikoa denez— Getxoko Udalak, irakurketa sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzte zaletasun hori ahalik eta pertsona gehienen artean zabaltzeko, betiere txikienetatik hasiz.

Todas las instituciones públicas, entre ellas lógicamente el Ayuntamiento de Getxo, llevan a cabo acciones para fomentar la lectura al mayor número de personas posibles, empezando por los más pequeños.

Alabaina, Udal Talde Popularreko kideok uste dugu gure udalerrian irakurketa gehiago sustatu daitekeela adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen artean.

Sin embargo, desde el Grupo Municipal Popular, consideramos que en nuestro municipio se puede dar un mayor fomento de la lectura hacia las personas mayores y a las personas con discapacidad.

Adinekoei dagokienez, arestian aipatutakoaz gain, irakurketa bakardadearen aurkako sendagaia da, eta, besteak beste, lagungarria da memoria, kontzentratzeko gaitasuna eta enpatia hobetzeko.

Para las personas mayores, además de lo expuesto anteriormente, la lectura es un remedio contra la soledad y les proporciona, entre otras cosas, una mejora de la memoria, una mayor capacidad de concentración, y una mejora de la empatía.

Zoritxarrez, zenbait kasutan adinekoak, arazo fisikoengatik, ez dira beren etxebizitzetatik irteten; hori dela eta, ahal den guztia egin beharko genuke liburutegietara joan ezin diren pertsona horiek guztiak moduren baten udal-liburutegietako erabiltzaile izan daitezen.

Desgraciadamente nos encontramos con que en algunos casos las personas mayores, en muchos casos por cuestiones físicas, no salen de sus domicilios y por eso habría que hacer todo lo posible para que estas personas, que no pueden acudir a las bibliotecas, pudieran ser de alguna manera usuarios de las bibliotecas municipales.

Hori dela eta, mozio honen bitartez 70 urtetik gorako pertsonentzako nahiz desgaitasuna duten pertsonentzako liburuen etxeko mailegu-zerbitzua abian jartzea nahi dugu.

Por ello lo que se propone en esta moción es la existencia de un servicio de préstamo de libros a domicilio para las personas mayores de 70 años y para las personas con discapacidad.

Kasu honetan, doako zerbitzua izango litzateke eta zerbitzuko erabiltzaileen etxeetan jasoko lirateke liburuak.

En este caso de manera gratuita se llevarían y se recogerían los libros en el domicilio de las personas usuarias de este servicio.

Horrela, liburutegietara joateko zailtasun fisiko gehien dituzten kolektiboak (hots, adinekoak eta desgaitasuna duten pertsonak) mesedetuko lirateke eta, aldi berean, biztanleariaren bi sektoreen artean irakurketa bultzatuko lirateke, horrek abantaila ugari baititu.

De esta manera se beneficiarían los colectivos que tienen más dificultades físicas para acceder a las bibliotecas, que son básicamente las personas mayores y con discapacidad y se facilitaría el fomento de la lectura a ambos sectores de la población, con las ventajas que ello conlleva.

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak honako ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkeztu nahi du:

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

Lehenengoa: Liburuen etxeko mailegu-zerbitzua ezartzea udalerrian erroldatuta dauden 70 urtetik gorako pertsonentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat.

Primero: Implantar un servicio de préstamo de libros a domicilio para las personas mayores de 70 años y personas con discapacidad empadronadas en el municipio.

Bigarrena: Mozio honen berri ematea udalaren hedabideetan.

Segundo: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Hirugarrena: Pertsona boluntarioen sare bat osatuko da, etxetik ateratzeko ezintasuna duten, eta zerbitzua eskatzen duten pertsonei irakurle lanak egite ko euren etxeetan. Horrela, bakardade egoera jasan behar dutenen egoerari irtenbide bat emango zaio.

Tercero: Organizar una red de personas voluntarias para acudir a los domicilios de aquellas personas imposibilitadas para salir de casa y que solicitaran el servicio, con el fin de ofrecerles sesiones de lectura, rompiendo así, en caso de necesidad, el aislamiento que pudieran padecer.

**192.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO UDAL IRRATIA.**

**192.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA RADIO MUNICIPAL.**

Javier Elorzak ondorengo mozioa irakurri du:

Javier Elorza da lectura a la siguiente moción:

Denok dakigun moduan, Getxoko Udalak irrati-lizentzia bat dauka. Ikusi dugunez, aipatutako irratiaren programazioa grabatutako musika ematean datza soilik, ez du beste espaziorik. Getxoren tamaina aintzat hartuta, errealitate negargarri hori ez

Como es bien conocido por todos, el ayuntamiento de Getxo es poseedor de una licencia de Radio. Venimos observando que la programación que emite la citada radio se reduce exclusivamente a la emisión de música enlatada y ningún otro espacio. Esta

dator bat gure udalerriarekin. Gure udalerriak anbizio handiagoko programazioa merezi duela deritzogu.

lamentable realidad no corresponde a un municipio del volumen de Getxo. Consideramos que nuestro municipio se merece una radio con una programación más ambiciosa.

Udal Talde Popularreko kideok uste dugu herritarrok programazio eskas hori baino askoz gehiago eskaini behar dugula. Gauzak horrela, gure ustez, udal-komunikabideetan, hala nola udal-irratian, udaleko albisteen berri emateko edo udaleko taldeen arteko debateak ahalbidetzeko programazioa izan behar dugu, esate baterako. Ideia horiek oinarri hartuta, udal-irrati baten inguruko itxaropenak lortzeko programazioa garatu beharko genuke.

Desde el Grupo Municipal Popular entendemos que a la ciudadanía debemos ofertar algo más que esta pobre programación. En este sentido creemos que un medio de comunicación como la radio municipal debe ofrecer una programación en la que, como ejemplo se pueda informar de noticias municipales o incluso propiciar debates entre los diferentes grupos municipales. A partir de estas ideas se debería desarrollar una programación que satisfaga las expectativas, que de una emisora municipal cabe esperar.

Hori egin ezean, gure irratia hobetzeko aukera baztertzen bada, birplanteatu beharko genuke ea beharrezkoa ote den hizpide dugun irratia egotea, kontuan hartua gaur egun hura mantentzeak dakartzan gastuak. Gaur egun, ez du zentzu askorik grabatutako musika soilik ematen duen komunikabide bat mantentzeak.

Si no fuese así y se descartase la promoción de nuestra emisora de radio nos deberíamos replantear la existencia de la citada emisora con todos los gastos que, al día de hoy supone su mantenimiento. No tiene mucho sentido, a día de hoy, mantener un medio de comunicación que sólo emite música enlatada.

Ezinbestekoa da gaia jorratzea, eta irratia mantendu, bertan behera utzi edo itxi behar den erabakitzea eta justifikatzea.

Es necesario una puesta en valor seria, que determine y justifique o bien el mantenimiento de la emisora o su cancelación y cierre.

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak honako ERABAKI PROPOSAMEN hau aurkeztu nahi du:

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1 Udal-irratiaren etorkizunaren gaineko erabaki bat hartzea, bai anbizio handiagoko programazio baten bidez hobetzeko, bai, bestela, bertan behera uzteko.

1 Que se proceda a considerar el futuro de la radio municipal o bien promocionándola con una programación más ambiciosa, o de lo contrario procediéndose a su cancelación.

2 Mozio honen berri ematea udalaren hedabideetan.

Itxaso Masedak ordezteko zuzenketa transakzional bat aurkeztu du, eta honako hau irakurri du:

*"Getxok baditu irrati-lizentzia bat, irratia emititzeko beharrezko baliabide materialak, eta on- line entzun ahal izateko egin beharreko inbertsioak egin izan dira. Beraz, Getxok badauka kalitatezko irrati bat edukitzeko aukera.*

*Gaur egungo egoera, baina, ez da kalitatezko programazioa ematen duen irrati batena. Are gehiago, programazio bat duela esatea ere gehiegizkoa da. Getxo bezalako udalerri batek, duen biztanle kopuruari bakarrik begiratuta, bestelako irrati bat merezi duelakoan gaude.*

*Getxok behar du bertatik eta bertarako informazioa emango duen tresna bat, Udalbatzaren edo Udal Gobernuaren galbahea pasa beharko ez lukeen tresna bat. Horregatik, eta dauden aukerak ikusita, Getxoko Udal-Irratian beharrezko inbertsioak egin eta berau aipatutako tresna bilakatzea ezinbestekoa da. Berriro diogu, irrati honek, finantzazio publikoa bal, baina jardun autonomoa beharko luke izan. Getxoko herritarren zerbitzura jardungo luke, gehien bat Getxoko berriak emanez, Getxoko musika taldeen sustapena oinarri izanik, Getxoko pertsonei ahotsa emanez, eta Getxoko mugimendu herritar ezberdinei euren eskakizunak zabaltzeko aukera eskainiz. Eta noski, Getxon euskara sustatzeko euskarri bezala ikusten dugu guk. Dialean dauden irrati gehienek eskaintzen ez dutena eskainiko luke horrela irrati honek: Getxotlk Getxorako informazioa, eta euskaraz.*

*Hau horrela izanik, akordio proposamen*

2 Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Itxaso Maseda presenta una enmienda transaccional de sustitución a la que da lectura:

*"Getxo tiene una licencia de radio, las herramientas necesarias para la emisión, y se ha hecho la necesaria inversión para su retransmisión vía internet. Por lo tanto, Getxo tiene la capacidad de ofrecer una radio pública de calidad.*

*Pero a día de hoy, esta radio no es una radio con una programación de calidad. Es más, hablar de programación ya sería demasiado. Un municipio como Getxo, solo teniendo en cuenta su población, se merece una radio de más ambición.*

*Getxo necesita una herramienta que de información eminentemente local, sin tener que pasar el filtro de la corporación o el gobierno municipal. Por ello, y teniendo en cuenta las posibilidades que existen, creemos necesario hacer las inversiones necesarias para convertir la radio actual en esa radio que planteamos. Y lo queremos dejar claro, esta radio, aun teniendo financiación pública, tendrá un funcionamiento autónomo. Estaría al servicio de las y los Getxoztarras, dando noticias de Getxo, teniendo como principio la difusión de música creada aquí, dando la voz a quienes viven en Getxo, y ofreciendo espacios a las diferentes expresiones del movimiento popular local. Y por supuesto, prevalecerá el euskara. Así, ofrecería eso que ninguna o pocas radios más pueden ofrecer información de Getxo en euskara.*

*Siendo esto así, traemos esta propuesta de*

*hau dakargu, Udalbatzak onar dezan:*

*1. Getxoko Udal-lrratiko programazioa diseinatu eta martxan jartzea*
*2. Getxoko Udal-lrratian Getxoko elkarteei zein herri mugimenduko espresio ezberdinei lekua egingo zaie*
*3. Getxoko espresio artistiko-kulturalen bozgorailu funtzioa izango du*
Gonzalo Ayoren aburuz, mozioak arazo honen egoera mugatua eskaintzen du. Izan ere, Getxon badaude beste kale batzuk arazo hori dutenak. Bere ustez, jarduera isolatuak egin beharrean, beharrezkoa da ikuspegi orokorrago bat edukitzea, mugikortasun jasangarria sustatzeko. Ondorioz, abstenitu egingo dira.

Gonzalo Ayo cree que la moción ofrece una situación limitada de esta problemática ya que hay otras calles de Getxo que tienen ese problema. Cree que en lugar de actuaciones aisladas es preciso disponer de una visión más global potenciando una movilidad sostenible por lo que se van a abstener.

Javier Elorzak gogorarazi duenez, iragan urtarrileko mozioan azterlan bat egitea onartu zen, eta ez dakite egin ote den. Inguruan bizi diren auzokideekin hitz egin dute, eta ez zaie positiboa

Javier Elorza recuerda que en la moción del pasado enero se acordó realizar un estudio que desconocen si se ha realizado. Han hablado con residentes de la zona y no ven positivo

iruditzen kalea norabide bakarreko bide bihurtzea. Egia da espaloiak estuak direla, baina ondoan badago oinezko kale bat: Basagoiti etorbidea. Bere iritziz, mozioan planteatu denak kalteak eragiten ditu onurak baino gehiago, eta, beraz, kontrako botoa emango dute.

convertir la calle en una vía unidireccional. Es cierto que las aceras son estrechas pero existe una calle paralela peatonal que es la Avda. Basagoiti. Cree que lo que se plantea en la moción genera más perjuicios que beneficios por lo que votarán en contra.

Janire Ociok bide horretako arazoa aitortu du, batez ere 35 eta 37 zenbakien parean. 2019ko irailetik dago indarrean Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana, herritarren eta talde politikoen partaidetzarekin onartua. Plan horretan, ibilgailuen nahiz oinezkoen mugikortasuna hobetze aldera egin daitezkeen jarduerak aztertzen dira. Kontuan hartuta mozioan jasotako arazoa, beharrezkoa iruditzen zaio azterlan tekniko bat egitea Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planaren eremuan, baina, aurretik, Gainza aparkalekuko obrak amaitu arte itxaron behar dela uste dute, ondoko zirkulazioan izango duten eraginak ikusteko. Ondorioz, abstenitu egingo dira.

Janire Ocio reconoce la problemática en dicha vía sobre todo a la altura de los números 35 y 37. Desde septiembre de 2019 está vigente PMUS que se ha acordado con participación ciudadana y de los grupos políticos y en ese plan se analizan las posibles actuaciones a realizar en orden a mejorar la movilidad tanto de vehículos como de peatones. Teniendo en cuenta la problemática recogida en la moción cree necesario realizar un estudio técnico en el ámbito del PMUS pero previamente ven que hay que esperar a la finalización de las obras del parking de Gainza, ver los efectos en la circulación adyacente por lo que se abstendrán.

Ibon Rodríguezek azaldu duenez, PSE-EEk gorantz jotzen du, baina mozioa kale bati buruz ari da, eta EH Bilduk ez du arazorik beste kale batzuetako gatazka-puntuak ekartzeko. Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana dagoeneko badagoela gogorarazi dio. PPri onartu dio Basagoiti etorbidea dagoela, oinezkoa dena, baina hori ez omen da arazo guztiarentzako irtenbidea. EAJren jarrera usteko jarduera lau urtez atzeratzean datza. Planteatzen duten arazoa teknikoki aztertzea eta irtenbideak aurkeztea nahi dute, bai eta herritarren partaidetza kontuan hartuz erabakitzea ere.

Ibon Rodríguez indica que el PSE-EE tira por elevación pero la moción se refiere a una calle y EH Bildu no tiene problemas en traer problemáticas de otras calles y le recuerda que existe ya el PMUS. Al PP le reconoce la existencia de la Avda. Basagoiti peatonal pero no es solución para todo el problema. La postura del PNV es retrasar la posible actuación en cuatro años, lo que buscan es que se analice técnicamente el problema que plantean y se presenten soluciones y se decida teniendo en cuenta la participación ciudadana.

Ignacio Roblesek adierazi duenez, ez

Ignacio Robles manifiesta que no han

dute ezer entzun iritzia aldarazi dienik. Eskatu den azterlanak etorkizuneko aparkalekuaren ondorioak jaso litzakeela gaineratu du.

escuchado nada que les haga cambiar de opinión y el estudio que se pide podría incorporar los efectos del futuro parking.

Mozioa bozkatu da eta honako emaitza hau lortu du: 6 boto alde (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos), 5 boto kontra (PP); 14 abstentzio (EAJ eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 5 votos en contra, PP; 14 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoz onartu da honako mozio hau:

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Oinezkoei espazioak emateko hainbat moldaketa egin dira Getxon. Beti da ondo etorria bide honetan doan edozein moldaketa. Baina oraindik baditugu, arlo honi dagokionean, puntu beltzak. Izan ere, Alangoko gasolindegi zaharretik Udaletxe bitartean doan zatian, oinezkoak erabat baztertuta daude. Bertan bizi direnek errepidean ikusten dute euren burua etxetik atera bezain laster, espaloiak estuak dira eta. Hala ere, errepidea bera ere ez da oso zabala, baina autoak batzuetan arinegi joaten dira.

En Getxo se han realizado varias adaptaciones a fin de dar espacios a los peatones. Siempre será bienvenida toda adaptación que tenga ese objetivo. No obstante, en lo referente a ese tema todavía tenemos algunos puntos negros. Cabe mencionar que los peatones están totalmente dejados de lado en el tramo que va desde la antigua gasolinera de Alango hasta el Ayuntamiento. Los vecinos y vecinas de la zona se ven en plena carretera en cuanto salen de casa, ya que las aceras son estrechas. La carretera no es especialmente ancha, pero a veces los coches circulan a demasiada velocidad.

Egoera hau arintzeko, bide bat izan daiteke errepide zati hau, Algortako Etorbidekoa alegia, norabide bakarrekoa izatea, horrela errepidea estutuz eta espaloientzako lekua irabaziz. Esaterako, norabidea Algortatik ateratzeko bada, Algortako sarrera Foru kaletik abiatuta Alango eta Euskal Herria kaleetatik bideratu daiteke.

Una manera de aliviar esta situación que se da en la Avenida de Algorta podría ser hacerla de un solo sentido; de ese modo, se lograría estrechar la carretera, así como ensanchar la acera. Por ejemplo, si el sentido de la carretera fuera para salir de Algorta, la entrada podría situarse en la calle de los Fueros y abarcar las calles Alango y Euskal Herria.

Hala, proposatutako bidea, modu interesgarria izan daiteke oinezkoei dagokien espazioa herri erdigunean ere emateko.

Por lo tanto, el camino propuesto podría ser un modo interesante de dar a las personas viandantes el espacio que les corresponde en el centro del municipio.

AKORDIOA

Gauzak horrela, Getxoko Osoko Bilkurak honako hau adosten du:

1. Udalak Algortako Etorbideko Gasolindegi Zaharra eta Udaletxe arteko zatia norabide bakarrekoa egiteko, espaloiak zabaltzeko eta trafikoa lausotzeko beharrezko azterketa egingo du.

2. Aipatu azterketan, Udalak aintzat hartuko ditu prozesu parte-hartzaile baten bidez bilduko diren bereziko errepide zati horretan bizi diren pertsonen iritziak eta ekarpenak

3. Udalak beharrezkoa den diru partida bideratuko du aipatu azterketa eta bere ondorioz egin behar diren lanak egiteko

ACUERDO

Así las cosas, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda lo siguiente:

1. El Ayuntamiento realizará el estudio necesario para convertir el tramo entre la antigua gasolinera y el consistorio en carretera de sentido único, ensanchar las aceras y disminuir el tráfico.

2. En el citado estudio, el Ayuntamiento tomará en cuenta las opiniones y aportaciones que expresen los vecinos y vecinas del citado tramo, que se recogerán mediante un proceso participativo.

3. El Ayuntamiento destinará una partida económica para realizar el citado estudio y los trabajos derivados de este.

**196.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HERRITARRAK JOKOAREN ETA APUSTUEN NEGOZIOTIK BABESTEA.**

Paula Amievak ondorego mozioa irakurri du:

Azken urteotan ausazko apustuen eta jokoen negozioa modu esponentzialean ari da zabaltzen gure kale eta auzoetan, tabernetan eta Interneten. Gaur egun Euskadin 256 joko-areto, apustuak egiteko lokal eta bingo daude. Gainera, Euskadin 11.351 txanpon-makina eta 2.100 apustu-makina daude, gehienak tabernetan kokatuta. Aurrez aurreko joko horri lineako jokoen eta

**196.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/PROTECCIÓN DE LA CIUDADANÍA FRENTE AL NEGOCIO DEL JUEGO Y LAS APUESTAS.**

Paula Amieva da lectura a la siguiente moción:

En los últimos años, el negocio de las apuestas y juegos de azar se está extendiendo de forma exponencial por nuestras calles y barrios, por los bares y por Internet. A día de hoy ya hay 256 salones de juego, locales de apuestas y bingos en Euskadi. Además, en Euskadi hay 11.351 máquinas tragaperras y unas 2.100 máquinas de apuestas, que en su mayoría se encuentran en bares. A este

Interneteko kirol-apustuen hazkunde izugarria gehitu behar zaio, eta horri buruz eskuragarri dauden datuak ez dira nahiko, nahiz eta 2017-2020 aldirako Euskadiko Adikzioen VII. Planak arriskuak aitortzen dituen, batez ere gazteei dagokienez. Euskal herritarren % 26 (436.906 pertsona) jokalari aktiboa da dagoeneko, azken urtean gutxienez astean behin gastatu baitu dirua ausazko jokoren batean.

juego presencial hay que añadir el crecimiento desenfrenado de los juegos online y las apuestas deportivas en Internet, sobre el que no existe una disponibilidad suficiente de datos, pese a que el VII Plan de Adicciones de Euskadi 2017-2020 reconoce sus riesgos, especialmente para la población joven. El 26% de la población vasca (436.906 personas) ya es jugadora activa, al haber gastado dinero al menos una vez a la semana durante el último año en algún tipo de juego de azar.

Gure auzokide gazteenak jomuga errazena bihurtzen ari dira jokoaren arloko enpresentzat eta, aldi berean, kaltetuenak dira ludopatia hedatzeak dakarren osasun publikoko arazo larriagatik. Enpresa horiek batez ere baliabide gutxien dituzten gizarteko geruzetara, gazte txiroenetara eta bizitzan aurrera egiteko aukera gutxiago dutenengana zuzentzen dituzte euren ahaleginak. Jokoaren eskaintza gero eta maizago agertzen da ikastetxe eta institutuen inguruetan, eta, horren ondorioz, ikasle horiek, neskek eta mutilek, mendekotasun eta adikzio arazoak eragin ditzakeen jarduera baten normalizazioa jasan behar dute. Hori ez ezik, kasu askotan lokal eta esparru horietan sarbide kontrolak lausoak direnez, ez da ezohikoa adingabeek ausazko joko eta apustu horietan parte hartzea. Horri guztiari jokoaren online publizitate izugarria gehitu behar zaio, iraunkorra delako plataforma digitaletan eta komunikabideetan eta inolako ordutegi-mugarik gabekoa delako. Jokoaren arloko enpresek publizitateko espazioak unean uneko aurpegi ezagunenekin atzematen dituzte eta kirol "idoloak" erabiltzen dituzte mugikorrean, tabletean edo ordenagailuan klik batera dauden gero

Nuestros vecinos y vecinas más jóvenes se están convirtiendo en el blanco más fácil para las empresas del juego y en las más perjudicadas por el serio problema de salud pública que supone la propagación de la ludopatía. Estas empresas se ceban sobre todo con los estratos sociales con menos recursos, con la juventud más empobrecida y con menos oportunidades para progresar en la vida. La oferta del juego se presenta cada vez con más frecuencia en las inmediaciones de colegios e institutos, con la consiguiente exposición de las alumnas y alumnos al juego y a la normalización de una actividad que puede desembocar en problemas de adicción. Como los controles de acceso en muchos casos son laxos, la participación de menores en ellos no es inhabitual. A esto hay que añadirle la omnipresencia de la publicidad del juego online en plataformas digitales y medios de comunicación, sin ningún tipo de limitación horaria. Las empresas del juego copan los espacios publicitarios con las caras más populares del momento y utilizan a “ídolos” deportivos para atraer a personas cada vez más jóvenes que tienen a un golpe de clic en el móvil, la tablet o el ordenador la posibilidad de probar

eta gazte gehiago erakartzeko.

Errealitate horren aurpegirik mingarriena agertzen da egiaztatzen denean Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren arabera dagoeneko 43.000 euskal herritarrek joko patologikoko nahasmendua dutela, eta gazteen artean % 5era iristen direla mendekotasun hori aurre egiten ari direnak. Gaur egun jokoarekin arazoak izateagatik elkarteetara laguntza eskatzera joaten diren pertsonen profila 26 eta 35 urte artekoa da gizonen kasuan, eta 36 eta 45 urte artekoa emakumeen kasuan. Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) aitortutako nahasmendu horrek ondorio kezkagarriak dakarzkie gaitz hori pairatzen duten pertsonei, haien hurbileko zirkuluari eta gizarte osoari. Hala ere, ezinezkoa da Euskadiko ludopatiaren errealitatea kuantifikatzea, Eusko Jaurlaritzak aldiro egiten duen "Euskadi eta Drogak" inkestak ez duelako aztertzen jokoarekiko mendekotasuna, adikzioetako adituek eta ludopatiari laguntzeko Euskadiko elkarteek eskatzen duten bezala.

Egoera horrek erakunde publikoek gaiari ekitea eskatzen du, arazoaren tamainarekiko neurri egokiekin eta eraginkorrekin. Eusko Jaurlaritzak protagonista izan behar du gai honetan, eta gure herriko Udalak ere erantzukizun handia du gure bizilagunak joko patologikoaren atzaparretatik babesteko orduan.

Hau guztia kontuan hartuta Elkarrekin Podemos Udal Taldeak honako ERABAKI PROPOSAMENA aurkezten dio Getxoko udaleko Osoko Bilkurari:

suerte.

La cara más amarga de esta realidad emerge al constatar que ya son 43.000 vascos y vascas las que presentan un trastorno de juego patológico según el Departamento de Salud del Gobierno Vasco y que hasta un 5% de la población joven se enfrenta a esta adicción. Actualmente, el perfil de personas que acuden a las asociaciones a solicitar ayuda por problemas con el juego tiene entre 26 y 35 años en el caso de los hombres, y entre 36 y 45 en el de las mujeres. Este trastorno reconocido por la Organización Mundial de la Salud (OMS) conlleva consecuencias alarmantes para las personas que lo padecen, para su círculo cercano y para el conjunto de la sociedad. Sin embargo, resulta imposible cuantificar la realidad de la ludopatía en Euskadi, puesto que la encuesta periódica “Euskadi y Drogas” que lleva a cabo el Gobierno Vasco no estudia la adicción al juego tal y como reclaman las expertas y expertos en adicciones y las asociaciones de ayuda a la ludopatía de Euskadi.

Esta situación requiere que las instituciones públicas tomen cartas en el asunto con medidas eficaces y a la altura del problema. Se requiere que Gobierno Vasco asuma un papel protagonista en la materia, del mismo modo que el Ayuntamiento de nuestro municipio tiene una gran responsabilidad a la hora de proteger a nuestros vecinos y vecinas de las garras del juego patológico.

Por todo ello, desde el Grupo municipal Elkarrekin Podemos elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Getxoko udaleko Osoko Bilkurak konpromiso hauek hartzen ditu:

a. Udalerrian edo udal-guneetan egiten diren eta haur eta gazteek jaso ditzaketen kirol ekitaldietan ikus-entzunezko publizitatearen edukiaren hedapena eta apustuen kuotak mugatzea. Zabalkundea titulartasun publikoko bitarteko eta gailuetan egiten ez dela ziurtatzea.

b. Ludopatiaren aurkako sentsibilizazio kanpaina zehatzak egitea arazo honetan lanean ari diren tokiko eta/edo eskualdeko erakundeekin batera.

c. Getxoko jokoaren eta kirol-apustuen egoerari buruzko azterlan bat egitea.

d. Getxoko birgaitze elkarteek eta zentroek ludopatia prebenitzeko eta laguntzeko egiten dituzten programetarako aurrekontu-laguntza ematea.

e. Joko-aretoak eta apustuak dauden auzoetako bizilagunen artean partaidetza azterlan edo prozesu bat egitea, lokal horiek beren eguneroko bizitzetan eta 300 metro erradial baino gutxiagora dauden ikastetxeetan duten eraginari buruzko iritzia ezagutzeko.

2. Getxoko udaleko Osoko Bilkurak honako hauek eskatzen dizkio Eusko Jaurlaritzari:

a. Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legea aldatzea, biztanle-dentsitate handieneko eremuetan jokoen eta apustuen lokalen kontzentrazioa geldiarazteko eta ikastetxeetara edo osasun-zentroetara duten distantzia 300 metro erradialera

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo se compromete a:

a. Limitar la difusión de contenido audiovisual publicitario y las cuotas de apuestas en eventos deportivos que se lleven a cabo en el municipio o en espacios municipales, susceptibles de su recepción por el público infantil y juvenil. Asegurar que la difusión no se efectúe en los medios y dispositivos de titularidad pública.

b. Realizar campañas concretas de sensibilización contra la ludopatía junto a las organizaciones locales y/o comarcales que están trabajando en este problema.

c. Desarrollar un estudio sobre de la situación del juego y las apuestas deportivas en Getxo.

d. Apoyar presupuestariamente los programas de ayuda y prevención de la ludopatía que lleven a cabo asociaciones y centros de rehabilitación en Getxo.

e. Realizar un estudio o proceso participativo entre los vecinos y vecinas de los barrios donde haya salones de juego y apuestas para conocer su opinión sobre el impacto, tanto en sus vidas cotidianas como en los centros escolares que se sitúen a menos de 300 metros radiales, de estos locales.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco a:

a. Modificar la Ley 4/1991, de 8 de noviembre, reguladora del juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco con el fin de frenar la concentración de los locales de juegos y apuestas en las zonas con mayor densidad poblacional y limitar a 300 metros radiales su distancia a centros educativos o de

mugatzeko.
b. Urtero, Jokoaren Euskal Behatokiaren bidez, Euskadiko jokoaren eta kirolen arloko apustuen egoerari buruzko azterketa sakona egitea; azterlan horretan berariaz zainduko dira online plataformak eta bai eta horiek gazteenei eragiten dizkieten ondorioak ere.
c. "Euskadi eta Drogak" aldizkako inkestan ludopatiaren diagnostikoa Euskadin sartzea.
d. Jokoen eta apustuen lokaletarako sarbidea kontrolatzeko mekanismoak ezartzea, adingabeak babesteko eta joko-denbora arduratsuagoetan laguntzeko.
e. Euskadin ausazko apustuen eta jokoen publizitatea mugatzea, tabakoa edo alkohola bezalako beste adikzio mota batzuetarako lehendik dauden mugen ildotik.
f. Euskadiko jokoen arloko enpresen irabaziei errekargu bat ezartzea ludopatia birgaitzeko eta tratatzeko programak finantzatzeko.

salud.
b. Elaborar, a través del Observatorio Vasco del Juego, un estudio exhaustivo anual sobre la situación del juego y las apuestas deportivas en Euskadi, con especial atención a las plataformas online, y sus consecuencias para la población más joven.
c. Incorporar en la encuesta periódica “Euskadi y Drogas” el diagnóstico de la ludopatía en Euskadi.
d. Establecer mecanismos de control de acceso a locales de juego y apuestas con el fin de proteger a las personas menores de edad y contribuir a unos tiempos de juegos más responsables.
e. Limitar la publicidad de las apuestas y juegos de azar en Euskadi en línea con las limitaciones ya existentes para otro tipo de adicciones como el tabaco o el alcohol.
f. Establecer un recargo a los beneficios de las empresas del juego en Euskadi con el fin de financiar programas de rehabilitación y tratamiento de la ludopatía.

Paula Amievak adierazi duenez, gai hau udalean jorratu zen 2018ko abenduan, eta harrezkero arazoa larriagotu egin da. Hori dela eta, udalak onartu beharreko neurriak eta beste administrazio batzuei zuzendutako eskariak aurkeztu dira. Adierazi duenez, gobernu-taldeak Elkarrekin Podemosen zuzenketa bat onartu du, ludopatiaren aurkako kanpainak abiarazteko. Ondorioz, mozioa onartuko dela espero dute.

Paula Amieva indica que este tema se debatió en el ayuntamiento en diciembre de 2018 y desde entonces el problema se ha agudizado por ello presentan medidas a aprobar por el ayuntamiento y peticiones a otras administraciones. Indica que el equipo de gobierno ha admitido una enmienda de Elkarrekin Podemos para poner en marcha campañas contra la ludopatía, por lo que esperan que se apruebe la moción.

Carmen Díazek adierazi duenez, ludopatiaren arazoaren gainean kezkatuta daude beraiek ere, batez ere arazo horrek gazteengan duen presentzia ikusita. Gai honetan administrazio desberdinek dituzte

Carmen Díaz manifiesta que comparten la preocupación por la problemática de la ludopatía sobre todo en la juventud. En este tema hay competencias de diferentes administraciones desde el Gobierno Vasco a los ayuntamientos,

eskumenak, Eusko Jaurlaritzatik hasi eta udaletara. Erantzukizun desberdinen berri eman da. Udalak prebentzioaren gaineko eskumena dauka. Duela hainbat urtetik, hezkuntza-erkidegoarekin lanean ari da udala, eta informazio-batzordean aurkeztutako datuetara jo du. Ez dago ados proposamen zehatzekin. Ondorioz, ez dute mozioa babestuko. Hala ere, lanean jarraituko du jarduera hori ekonomikoki indartzen, Elkarrekin Podemosen zuzenketa aurrekontuan sartzean egin den bezala.

dando cuenta de las diferentes responsabilidades. El ayuntamiento tiene competencia en prevención y el ayuntamiento viene desde hace años trabajando con la comunidad educativa remitiéndose a los datos aportados en la comisión informativa. No comparte las propuestas concretas por lo que no van a apoyar la moción aunque seguirán trabajando en reforzar económicamente esta actuación como se ha hecho con la incorporación de la enmienda de Elkarrekin Podemos al presupuesto.

Itxaso Masedak adierazi duenez, jokoaren arazoa geroz eta handiagoa dela azaltzen du Elkarrekin Podemosen mozioak. Mozio hori udalerri askotan planteatu da, eta Getxo ez dago arazo horretatik salbuetsita. Arazo honen gaineko alarmak urteetan egon dira martxan, batez ere arazo honen aurrean erreakzionatzen ari diren gazteak kontuan hartuta. Bihotz Alai plazako jolas-lekuaren inguruan sortu den arazoa kritikatu dute, eta arazo horiek sortzea saihesteko lan egin behar dela uste dute.

Itxaso Maseda indica que la moción de Elkarrekin Podemos pone al descubierto la problemática cada vez mayor del juego. Esta moción se ha planteado en muchos municipios y Getxo no está ajena a esta problemática. Las alarmas sobre este problema llevan años, sobre todo ante la juventud que está reaccionando frente a este problema. Critican la problemática que se ha originado entorno a la sala de juegos de la plaza del Bihotz Alai y creen que hay que actuar para evitar que se generen estos problemas.

Javier Elorzak adierazi duenez, kezka horiekin bat dator, eta arriskurik handiena Interneten eta jolas birtualean dagoela uste dute. Planteatu dena ez zaio zuhurra iruditzen. Izan ere, Eusko Legebiltzarra gaia jorratzen ari da, eta laster hartuko ditu neurriak. Halaber, Jokoaren Euskal Behatokia plan bat amaitzen ari da, gaiaren gaineko legedia sustatzeko. Beraz, bere iritziz, itxaron egin behar da.

Javier Elorza indica que comparte las preocupaciones y creen que el riesgo más grande está en Internet y en el juego virtual. Le parece imprudente lo que se plantea ya que el Parlamento Vasco está tratando este tema y pronto tomarán decisiones y también el Observatorio Vasco de Juego está finalizando la elaboración de un plan que incentivará una legislación al respecto a la que hay que esperar.

Ignacio Uriartek adierazi duenez, ludopatiaren gaineko prebentziorako eta haren aurkako borrokarako neurri guztien alde daude. Hori dela eta, Elkarrekin Podemosen zuzenketa

Ignacio Uriarte manifiesta que son favorables a todas las medidas de prevención y control para luchar contra la ludopatía y en ese sentido se ha aceptado la enmienda de Elkarrekin

onartu da. Baina, era berean, adierazi duenez, zuzenketa-onarpen horrek ondorioak eduki ditzan, aurrekontua onartu behar da. Gai honen gainean dauden eskumen desberdinak zehaztu ditu, eta online jokoaren gaineko araudia estatuaren eskumena dela azpimarratu du. Udalaren lana prebentzioa izan behar da. Jokoaren Euskal Behatokia 2019an sortu zen, eta plan bat prestatzen ari da, administrazioen jardueran orientagarria izango dena.

Podemos pero indica también que para que esa aceptación de enmienda tenga efectos hay que aprobar el presupuesto. Concreta las diferentes competencias existentes en esta materia y respecto al juego on line recalca que su regulación es de competencia estatal. La labor del ayuntamiento debe centrarse en la prevención. Manifiesta que el Observatorio Vasco del Juego, creado el año 2019, está elaborando un plan que orientará las actuaciones de las administraciones.

Paula Amievak adierazi duenez, talde guztiak datoz bat arazoarekin, baina ez dute mozioa babestuko. PSE-EEri eskertuko zioketen proposamen zehatz guztiekin ados egon ezean zuzenketak aurkeztu izan balituzte. Mozioak bereizi egiten ditu udalak har ditzakeen jarduerak eta Eusko Jaurlaritzari dagozkionak. Babesa eskertu dio EH Bilduri. Neurririk ez planteatzea kritikatu dio PPri. Mozioak planteatzen duena ez da bateraezina Eusko Jaurlaritzak egingo duenarekin. Izan ere, Getxoren errealitatea hobeto ezagutzea da helburua, haren gainean eragin ahal izateko. EAJri gogorarazi dionez, udalerrian garatu behar diren proposamenetan ez da ezer adierazten online jokoari buruz.

Paula Amieva manifiesta que todos los grupos comparten el problema pero no se apoya la moción. Al PSE-EE le hubiera agradecido que si no comparten todas las propuestas concretas hubieran presentado enmiendas. La moción distingue entre las actuaciones que puede tomar el ayuntamiento y lo que se insta al Gobierno Vasco. A EH Bildu le agradece el apoyo. Al PP le critica que no planteen medidas y lo que la moción plantea no es incompatible con lo que vaya a hacer el Gobierno Vasco ya que se trata de conocer mejor la realidad de Getxo para incidir en la misma. Al PNV le recuerda que en las propuestas a realizar en el municipio no hay nada referido al juego on line.

Mozioa bozkatuta, baztertu egin da aldeko 6 botorekin (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos), kontrako 14 botorekin (EAJ eta PSE-EE) eta 5 abstentziorekin (PP).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 votos en contra, PNV, PSE-EE; 5 abstenciones, PP.

**197.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HIRI DEBAKATUAREN MAPA EGUNERATZEA.**

**197.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/ACTUALIZACIÓN DEL MAPA DE LA CIUDAD PROHIBIDA.**

Paula Amievak mozioa irakurri du. Adierazi duenez, duela hamar urtetik ez dakite ezer egindakoari buruz, eta ez da informazioa sartu webgunera. Horregatik aurkeztu da mozioa.

Paula Amieva da lectura a la moción. Indica que desde hace diez años no se sabe nada de lo realizado ni se ha incorporado a la página web y por eso se ha presentado la moción.

Carmen Díazek aitortu duenez, 2019. urtean partaidetza-lan handia egin zen hiri debekatuaren mapa zehazteko. Hirigintza-arloak gai gatazkatsuak hobetzeko lan egin du. Orain, amaitzear den berdintasunerako laugarren planaren diagnostikoa egingo da, ondoren bosgarren plana planifikatu ahal izateko. Lan horretan ari dira.

Carmen Díaz reconoce que en el año 2019 se hizo un gran trabajo participativo para definir el mapa de la ciudad prohibida. El área de Urbanismo ha trabajado en mejorar los puntos problemáticos. Se va a proceder ahora a elaborar el diagnóstico del cuarto plan de igualdad que finaliza para poder posteriormente al diagnóstico planificar el quinto plan y en esa labor están centrados.

Cristina Zamorak adierazi duenez, emakumeen segurtasunaren gaineko arazoa, batez ere, gauetan, garrantzitsua da. Getxok aurrera egin du, baina oraindik gehiago egin behar da. Ondorioz, mozioa babestuko dute.

Cristina Zamora manifiesta que la problemática de la seguridad de las mujeres, sobre todo a las noches, es importante. Getxo ha avanzado pero aún falta avanzar más por lo que apoyarán la moción.

Eduardo Andradek adierazi du bere taldeak ere mozioa babestuko duela. Ez zaie harritzekoa iruditzen gobernu-taldeak zerbait egiten ari dela esatea. Egia da puntu batzuk konpondu direla, eta lurpeko pasabidetako segurtasunaren gainean PPk aurkeztutako zuzenketa onartu dutela, baina oraindik aurrerago egin behar da.

Eduardo Andrade indica que van a apoyar la moción. No les sorprende que el equipo de gobierno diga que están haciendo algo y sí es cierto que algunos puntos se han ido solucionando y también que han admitido una enmienda del PP sobre seguridad en pasos subterráneos, pero aún queda por avanzar.

Keltse Eigurenek adierazi duenez, ados daude puntu beltzak eguneratzearekin. Neurri hori indarreko berdintasun-planean sartuta dagoela gaineratu du. Berdintasun Kontseiluan azaldu zenez, laugarren plana ebaluatuko da, ondoren berdintasunaren gaineko bosgarren plana egiteko. Diagnostikoan berariaz ikusiko da laugarren planean jasotako ekintzen betearazpen-maila, eta aztertuko da ea beharrezkoa den antzeko neurriak sartzea bosgarren

Keltse Eiguren indica que están de acuerdo con la actualización de los puntos negros y esa medida está incluida en el plan de igualdad vigente. En el Consejo de Igualdad se explicó que se va a proceder a evaluar el cuarto plan para posteriormente elaborar el quinto plan de igualdad. En el diagnóstico se verá el nivel de cumplimiento de las acciones recogidas en el cuarto plan y se verá si existe la necesidad de incorporar medidas

planean. Izan ere, hortxe jorratu behar dira era honetako jarduerak, berdintasunerako planaren bidez, baina ez, ordea, mozio bidez.

similares en el quinto plan y ahí es donde se deben incardinar ese tipo de actuaciones, vía plan de igualdad pero no vía moción.

Paula Amievak adierazi duenez, mozioko lehen puntua berdintasunaren gaineko indarreko planak jasotzen duenaren kopia da, eta martxan jar dadila eskatu du, plan berrira sartzeko itxaron behar izanik gabe. Neurri hori 2018. urterako egutegian ezarrita zegoen, eta ez du ulertzen neurri hori bete dadila eskatzen duen mozio baten aurka jotzea.

Paula Amieva indica que el primer punto de la moción es copia de lo que recoge el vigente plan de igualdad y pide que se ponga en marcha sin tener que esperar que se incorpore el nuevo plan. Esta medida estaba calendarizada para el año 2018 y no entiende que se opongan a una moción que pide que se cumpla esa medida.

Mozioa bozkatu da eta honako emaitza hau lortu du: 11 boto alde (PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta 14 abstentzio (EAJ eta PSE-EE).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoz onartu da honako mozio hau:

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Beste edozein hiritan eta udalerritan moduan, Getxon ere dakigu gure kaleetako segurtasuna eta hirigintza aztertzen. Horretarako, zenbait arlotan abian jarri ditzaketen hainbat tresna daude. Besteak beste, aipatzekoak dira genero-ikuspegia eta indarrean dagoen berdintasun-plana. Badakigu dagoeneko 10 urte igaro direla hura martxan jarri zenetik; are gehiago, plan horretatik sortu zen Hiri Debekatuaren Mapa izenekoa, udalerriko leku arriskutsuak aztertzen dituena. Arazoa zera da: 2009. urtetik bai Getxo, bai hiria begiratzeko gure modua aldatu egin dira.

Al igual que en cualquier otra ciudad y municipio, en Getxo también necesitamos analizar nuestro urbanismo y la seguridad de nuestras calles. Para ello, existen varias herramientas que se pueden poner en marcha desde varias áreas. Entre ellas, se encuentra la perspectiva de género y el Plan de igualdad vigente. Y sabemos que esto se puso en marcha hace ya 10 años, de lo que resultó un Mapa de la Ciudad Prohibida analizando los puntos peligrosos del municipio. El problema es que desde 2009, tanto Getxo como nuestra forma de ver la ciudad han cambiado.

Horrez gain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV Planari (2017-2020) dagokionez, 4. ardatzean, 8. programan, helburu espezifiko bat jasotzen da; hauxe dakar: "indarkeriaren biktima diren

Además, si nos fijamos en el IV Plan para la Igualdad de mujeres y hombres 2017-2020, dentro de su Eje 4, en el Programa 8, existe un objetivo específico que consiste en: “Reforzar los procesos individuales y colectivos de

emakumeen eta beraien ardurapeko pertsonen ahalduntze-prozesuak, banakoak nahiz taldekoak, sendotzea". Halaber, helburu horrek barne hartzen du NEURRI zehatz bat, Hiri Debekatuaren Mapa eguneratzeari buruzkoa. Planaren arabera, 2018. urtean gauzatu behar zen neurri hori. Alabaina, 2019ko azaroan ez dakigu planari dagokionez zein neurri hartu ziren 2018. urtean zehar; horrenbestez, ondorioztatzen dugu ez zela aipatutako Hiri Debekatuaren Maparen beharrezko eguneraketa egin. Gure ustez, inoiz baino beharrezkoagoa da neurri hori hartzea, bereziki kontuan hartuta HAPOa aztertzeko fasean dagoela; izan ere, aztertzeko eskatu dugu azterlanaren antzeko agiriak aintzat hartu behar dituela deritzogu.

empoderamiento de las mujeres víctimas de violencia y de las personas a su cargo"; dentro de este objetivo, podemos encontrar una MEDIDA concreta que precisamente hace referencia a la actualización del Mapa de la Ciudad Prohibida. Esa medida estaba fechada para llevar a cabo, según el Plan, en el año 2018. Pero en pleno Noviembre de 2019 no tenemos constancia de las medidas que se llevaron a cabo según el plan durante 2018, por lo que entendemos que tampoco se puso en marcha esta necesaria actualización del Mapa de la Ciudad Prohibida. Y esto creemos que es más necesario que nunca por la fase en la que se encuentra el PGOU en plena revisión, que a nuestro juicio debería tener en cuenta documentos y estudios como este que solicitamos que se revise.

Hori guztia kontuan hartuta, Elkarrekin Ahal Dugu Udal Taldeak honako ERABAKI PROPOSAMENA aurkeztu nahi dio Getxoko Udalaren Osoko Bilkurari:

Por todo ello, desde el Grupo Municipal Elkarrekin Podemos elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Hiri Debekatuaren Mapa eguneratzea, hirian emakumeen ahalduntzea sustatzeko asmoz eta emakumeek hiria modu seguruan erabiltzea bultzatze aldera.

1. Actualizar el mapa de la Ciudad Prohibida, fomentando el empoderamiento de las mujeres en la ciudad y favoreciendo que las mujeres puedan utilizar la ciudad de forma segura.

2. Modu parte-hartzailean mapa eguneratu ostean, udaleko webgunean, 2009ko maparen agirien ordez, eguneratutako agiriak argitaratzea nahi dugu; hala, kontsultatu ahalko ditugu bai eguneroko bizitzaren zein garapen ereduari buruzko tailerren ondorioz egindako txostena, bai txosten horretatik sortu diren esku hartzeko proposamenak, bai egindako lana ulertzen laguntzen duen beste edozein

2. Una vez que se actualice el mapa de manera participativa, que se publiquen en la web municipal, en el lugar de los documentos del Mapa de 2009, los actualizados para poder consultar tanto el Informe resultante de los talleres realizados sobre el modelo de desarrollo y vida cotidiana, como las propuestas de intervención que hayan surgido del mismo informe, así como cualquier otro documento que ayude a

agiri.

**GALDE-ESKEAK**

Paula Amievak alkateari galdetu dio ea udaletxeko plazatik pankarta bat kendu ote den dakien, bai eta Areetako Plazan auzokideen artean dagoen arazoari buruzko daturik duen ere.

Alkateak erantzun duenez, ez daki ezer pankarten bat kendu izanari buruz. Bigarren galdera dela eta, azaldu duenez, ukitutako auzokideekin hitz egiten ari dira, irtenbide bat bilatzeko.

14:20ean amaitu da batzarra.

Alkateak adierazi duenez, bost minutuko etena egingo da, herritarrei hitz egiteko aukera eman baino lehen.

14:25 direnean, herritarrek esku hartzeko txanda ireki da.

Javier Urkiagak hitz egin du, Getxoko akuarioko langileen ordezkaria denak. Azaldu duenez, hilabete eta erdi daramatzate greba mugagabean, bi langile kaleratu dituztelako, hau da, plantillaren heren bat, eta hitzarmena urratu delako. Udalak egoera hori baimentzen duela salatu du. Gogorarazi duenez, duela hilabete bilera bat eskatu zuten Josu Ateka teknikariarekin, eta oraindik ez dute erantzunik jaso. Duela astebete, era berean, zinegotzi arduradunarekin hitz egiteko eskatu zuten. Azaldu duenez, enpresak, udalaren adostasunarekin, grebak dirauen bitartean kudeatzailearen senide bat kontratatu du. Gogorarazi duenez, baldintza-

comprender el trabajo realizado.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Paula Amieva pregunta a la Alcaldesa si tiene constancia de que se haya retirado una pancarta de la plaza del ayuntamiento y también si está al tanto de la problemática vecinal que existe en la Plaza de Las Arenas.

La Alcaldesa contesta que desconoce absolutamente que se haya retirado alguna pancarta y sobre la segunda cuestión indica que están dialogando con los afectados para buscar una solución.

Siendo las 14:20 minutos se da por concluida la sesión

La Alcaldesa indica que se va a proceder a un receso de cinco minutos antes de la intervención del público.

Siendo las 14:25 minutos se da paso a las intervenciones del público.

Interviene Javier Urkiaga delegado del personal del acuario de Getxo. Manifiesta que llevan un mes y medio de huelga indefinida por el despido de dos trabajadores, que son un tercio de la plantilla y por el incumplimiento del convenio y denuncia la permisividad del ayuntamiento. Recuerda que hace un mes solicitaron una reunión con el técnico Josu Ateka y que todavía no han tenido respuesta y que hace una semana han pedido una entrevista con el concejal responsable. Estima que la empresa con la connivencia del ayuntamiento en este periodo de huelga ha contratado un familiar del gerente. Recuerda que el pliego de condiciones obliga a la empresa a

agiriak enpresari betebeharra ezartzen dio udalaren baimena eska dezan kontratazio berriak egin behar dituenerako. Beren ustez, enpresa, udalarekin batera, konstituzioko eskubideen aurkako jarduera ahalbidetzen ari da. Halaber, jakinarazi duenez, enpresak beherapenak aplikatu ditu akuariora bisita egitera datozen ikasleen tasen gainean, nahiz eta ezin duen halakorik egin udalaren baimenik gabe.

solicitar autorización del ayuntamiento para nuevas contrataciones. Creen que la empresa juntamente con el ayuntamiento está posibilitando actuaciones contrarias a derechos constitucionales. Informa también que la empresa ha aplicado descuentos sobre las tasas a escolares que van a visitar el acuario lo que no puede hacer sin autorización del ayuntamiento.

Alkateak honako hau erantzun du: ingurumeneko zinegotziarekin eskatutako bilerari itxaron diezaiotela, eta bilerara horretara bera ere joaten saiatuko dela. Bilera laster deitzea eta bertan dena argitzea espero du.

La Alcaldesa responde indicando que espere a la reunión solicitada con el concejal de Medio Ambiente a la que ella también hará lo posible para asistir, que se convocará en breve y en la misma se podrán aclarar todas las cuestiones.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko 14 eta 30 minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu ut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las 14 horas y 30 minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.